

# OÑATIKO ADIKZIOEN PREBENTZIORAKO TOKIKO PLANA

2023-2028

**agipad**





# AURKIBIDEA

|  |                                     |
|--|-------------------------------------|
| <b>1- Sarrera</b>  | <b>2</b>                            |
| <b>2- Arautegi esparrua</b><br><ul style="list-style-type: none"> <li>○ EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA. <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ 1/2016 LEGEA, APIRILAREN 7KOA, ADIKZIOEN ETA DROGA MENDEKOTASUNEN GAINEKO ARRETA INTEGRALARI BURUZKOA.</li> </ul> </li> </ul>   | <b>3</b>                            |
| <b>3- Marko teorikoa</b>   | <b>15</b>                           |
| <b>4- Errealitatearen analisia</b><br><ul style="list-style-type: none"> <li><b>4.1. DATU KUANTITATIBOAK</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>4.1.1. EUSTAT</li> <li>4.1.2. ESTUDES (2019)</li> <li>4.1.3. DROGAK ETA ESKOLA (2018)</li> <li>4.1.4. EUSKADI ETA DROGAK (2017)</li> </ul> </li> <li><b>4.2. DATU KUALITATIBOAK</b></li> </ul> | <b>21</b><br><b>21</b><br><b>53</b> |
| <b>5- Ondorio nagusiak</b>   | <b>57</b>                           |
| <b>6- Printzipio gidariak</b>  | <b>62</b>                           |
| <b>7- Esku hartze ardatz posibleak</b>   | <b>64</b>                           |
| <b>8- Helburu orokorrak</b>  | <b>65</b>                           |
| <b>9- Ekintzen lehentasuna</b>   | <b>69</b>                           |
| <b>10- Ebaluazioa</b>  | <b>76</b>                           |
| <b>11- Ekintzen kronograma</b>   | <b>77</b>                           |
| <b>*Gehigarria. Legedia</b>  | <b>80</b>                           |

# 1-SARRERA

Oñatiko Udalak hiru hamarkada baino gehiago daramatza menpekotasun fenomenoari arreta eskaintzen. Hasierako proiektua aldatzen joan da urteetan zehar, etengabeko bilakaeran dagoen menpekotasuna bezalako fenomeno baten beharretara egokitzeko ahalegin progresiboan.

Menpekotasunaren prebentzio lanak etengabe egokitzeko egin behar den lan horretan, genero ikuspegiak funtsezko presentzia izan behar du plan honetan. Urteetan zehar menpekotasunak lantzerako orduan ikuspegi androzentraren eragina nabaria izan da, baina genero-ikuspegia txertatzeak ikuspegi hau gainditzen hastea ahalbideratuko digu, izan ere, garrantzia handia eman diegu emakumezko eta gizonezkoen behar espezifikoaren analisiari; arrisku-faktore bereizgarriak eta esku-hartzeetan dauden alborapenak.

Halaber, berritasun moduan, prebentzio objektu gisa menpekotasun forma berriak sartu direla aipatu behar dugu: Internetaren eta sare sozialen erabilera desegokia edota gehiegizkoa eta IKT-ek duten eragina ausazko jokoekiko menpekotasunak bezalako jokaerak bultzatu eta hauen sarrera erraztarazterako orduan.

Oñatiko menpekotasunaren plan berriak (2023-2028) udalerrriak datozen bosturteetarako menpekotasunaren prebentzio arloan dituen konpromisoak biltzen ditu. Menpekotasunaren arloan aurrera eramango diren programa eta jarduketak multzoa islatzen dituen dokumentua sortu da, horretarako Oñatiko herritarren eta bertako erakunde eta instituzioen parte hartzea funtsezkoa izan delarik. Parte hartze hau lehentasunezko zat jotzen da menpekotasunen gaur egungo beharrei erantzun eraginkor bat eman ahal izateko.

Ezingo zen beste era batera egin, kontutan hartzen badugu arazo konplexu honek irtenbide konplexuak eskatzen dituela, baina batez ere irtenbide hauek koordinatuak izan behar direla. Horretarako behar-beharrezkoa da Oñatiko estamentu guztien inplikazioa, bai eta gizarte- eragile guztien parte-hartze eta koordinazioa ere.

Parte-hartze komunitarioaren garrantziaz jabetuz, dokumentu hau egiten hasi ginenetik, ahalik eta herritar gehienek hartu dute parte. Hori dela eta, menpekotasunaren plan honen prestaketa eta diseinuaren garapenean lankidetzat eta inplikazioa eskaini duten herriko erakunde eta pertsona guztiei eskertu nahi diegu.

## 2-ARAUTEGI ESPARRUA

Udal plana diseinatu eta martxan jartzerako orduan kontuan izan behar ditugu gure lanaren nondik norakoak zein duten arautegi aldetik oinarria, horretarako Euskal Autonomi Erkidegoan eta Estatu mailan eragiten duten eta gure lan ildoak adieraziko dituzten artikulua eta atalak adieraziko ditugu. Oñatiko Udalak, adikzioen gaiaren inguruko arau propiorik ez du, ezta bertan eragin dezakeen inongo aipurik, hau horrela, EAE mailan duen legea adieraziko dugu:

### EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA:

Euskal Autonomia Erkidegoko legediari dagokionez, lege asko dira orain arte adikzioaren gaia erregulatu dutenak. Hauek asko izanik, honi dagokion azken legedia hartu dugu kontutan. Hala eta guztiz ere, gure lanaren oinarria lege gehiagotik abiatzen denez, hauek gehigarri moduan erantsi ditugu, bai Estatu mailari dagozkionak eta baita EAE mailakoak ere, hauek Planaren bukaeran atxikitua daude (\*gehigarria).

#### **4) 1/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa:**

*Mugarri berri eta garrantzitsua ezartzen du gai hau heltzeko moduan. Helburu nagusia pertsonen osasuna babesten laguntzea, eta, bereziki, adingabeak eta gizatalde ahulenak zaintzea da. 1/2016 Legeak, apirilaren 7koak, adikzioen eta droga-mendekotasunen prebentzio eta arreta integralaren ereduaren oinarriak aipatzen ditu. Hauexek dira lege berriaren berrikuntza batzuk:*

- *Adikzioen gaia diziplina anitzetik eta modu integralean abor datzen ditu. Legeak jasotzen duen prebentzio eta asistentzia ereduaren oinarria da osasun publikoa eta politika guztietako osasunaren ikuspegia.*
- *Osasunaren sustapena jasotzen du. Prebentzioa eta eskaintza murriztea modu berezian abor datzen ditu eta osasunaren hezkuntza prebentziorako oinarri gisa hartzen ditu. Azken finean helburua da babes-faktoreak sustatzea eta arrisku-faktoreak murriztea.*

- *Alkohol-salmentaren eta -kontsumoaren kontrolarekin lotutako neurriak gogortzen ditu, adingabeek substantzia hori kontsumitzea debekatzen du, eta nikotina aska dezaketen gailuen erregulazioa eta tabakoarekin parekatzen ditu, murrizketa berberak izateko.*
- *Araudiak jokabide-adikzioak txertatzen du, aurre hartzeko, arreta emateko, gizarteratzeko eta eskaintza murrizteko helburuarekin. Zehazki, legeak joko patologikoa eta teknologia digitalekin nahiz horien aplikazioekin lotutako gehiegizko jokabideak jasotzen ditu.*

#### 1. ARTIKULUA. Legearen helburua eta aplikazio-eremua.

*1. Lege honen bidez arautu nahi dira adikzioen gaian, hala droga-mendekotasunetan nola jokabide-adikzioetan, hartu beharreko arreta integraleko neurri eta ekintzak honako arlo hauetan: osasunaren sustapena, prebentzioa, eskaintzaren murrizketa, asistentzia, gizarteratzea, prestakuntza eta ikerketa eta erakunde-antolakuntza.*

*2. Halaber, ekintza batzuk arautzen dira, hirugarren pertsonak babesteko bai drogak eta adikzioa eragin dezaketen beste substantzien kontsumoak bai jokabide-adikzioek sorraraz ditzaketen kalteetatik. Bereziki aintzat hartuko dira adingabeak eta gazteak, baita kalteberatasun bereziko egoeran dauden pertsonak ere.*

*3. Lege honetan ezarritakoa Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan adikzioen arloan era indibidualean zein kolektiboan titulartasun publiko zein pribatupean garatzen diren ekintzei aplikatuko zaie.*

### **OSASUNAREN SUSTAPENA ETA ADIKZIOEN PREBENTZIOA**

#### 8. ARTIKULUA. Osasunaren sustapenaren eta adikzioen prebentzioaren izaera eta norainokoa.

*- Osasun publikoaren ikuspuntutik, osasuna sustatzeko eta adikzioei aurrea hartzeko jarduerak lehenetsiko dira, eta, arlo honetan, lehentasunezko ekintza-eremutzat hartuko dira.*

#### 9. ARTIKULUA. Osasunerako hezkuntza.

*- Osasunerako hezkuntzak erantzukizun pertsonala eta soziala sustatuko ditu, horretarako ezaguera, jarrera eta ohitura osasuntsuak jasoz; gainera, lagunduko du garatzen osasun*

*indibiduala eta kolektiboa hobetzera eramango duten balio, jarrera eta trebetasun pertsonalak, gaitasuna emanez norberaren eta besteen osasuna zaintzeko egokienak diren erabakiak hartzeko.*

11. ARTIKULUA. Osasuna sustatzearen helburuak, adikzioen arloan.

*a) Ikuspuntu indibidualetik zein komunitariotik, erabilera eta jokabide arduratsuak eta osasunaren kultura sustatzea; hor sartu behar da drogek eta adikzioa eragin dezaketen bestelako substantzien kontsumo problematikoari eta jokabide-adikzioak sortzeko arriskua duten portaera neurrigabeei uko egitea.*

*b) Adikzioek, bai droga-mendekotasunek bai jokabide-adikzioek, bai eta bi horien aurrekari diren arrisku-portaerek ere, pertsonen osasunean duten eraginaren inguruko gizarte-sentsibilitatea eta ezagutza areagotzea.*

*c) Pertsonen, ezagutza, trebetasunak, gaitasunak, baliabideak eta tresnak ematea, horien bidez haien osasun-egoera eta emozio-oreka mantendu eta hobetzeko jokabideak izan ditzaten.*

12. ARTIKULUA. Osasuna sustatzeko neurriak adikzioen eremuan.

*- Osasuna sustatzeko garatzen diren jarduerak herritar guztiei zuzenduko zaizkie, etaarreta berezia jarriko da adin txikikoengan eta gazteengan eta pertsona eta kolektiborik ahulenetan.*

13. ARTIKULUA. Adikzioen prebentzioa.

*1. Lege honen esparruan, prebentzio-neurriak aplikatuko zaizkie adikzioei, horien aurrekari diren arrisku-faktoreei, kontsumo problematikoei eta jokabide-adikzioak sortzeko arriskua duten portaera neurrigabeei*

*2. Administrazio publikoek prebentziozko neurriak ezarriko dituzte, dagozkien eskumeneren esparruan eta, oso bereziki, osasunaren, gizarte-zerbitzuen eta hezkuntzaren sistematan, herritarrak sentsibilizatu eta informatzeko*

*3. Botere publikoek, haiei dagokien jarduera-eremuen barruan, prebentziozko jarduerak bultzatuko dituzte bizi-baldintzak hobetzeko, adikzioetan eragiten duten bazterkeria-faktore pertsonal, familiar edo sozialak gainditzeko eta egoera horrek eragiten dien pertsonak era normalizatuan gizarteratu daitezzen errazteko.*

*4. Prebentziozko jarduerak herritar guztiei zuzenduko zaizkie, bizitzako etapa guztietan; bereziki, arreta berezia jarriko zaie arrisku-faktoreak izan ditzaketen pertsonen eta taldeen, adin txikikoei eta gazteei, eta egoera ahulenetan bizi diren pertsona eta taldeei.*

*5. Prebentziozko jardueretan, lehenetsuta izango dute familia-, komunitate-, hezkuntza- eta lan-eremuek. Elkarrekin aritu beharko dute lanean, bai eta gizarte-eragileekin ere, aplikatu beharreko neurriak benetan eraginkorrak izan daitezzen.*

#### 14. ARTIKULUA - Helburuak, adikzioen prebentzioaren esparruan.

*Lege honen eremuan egingo den prebentziozko jarduna helburu hauek lortzera bideratuko da:*

*a) Babes-faktoreak hedatzea eta indartzea, drogen eta adikzioa sor dezaketen bestelako substantzien kontsumo problematikoak eta jokabide-adikzioak sortzeko arriskua duten portaera neurrigabeak agertzea eragozten baitute.*

*b) Norbanakoarengan, familian, lan-eremuan eta inguruan kalteak eragin ditzaketen arrisku-faktoreak ezabatzea edo gutxitzea.*

*c) Drogak eta adikzioa eragin dezaketen bestelako substantziak kontsumitzen hasten den adina ahalik eta gehien atzeratzea, bai eta jokabide-adikzioak garatzeko arriskua duten portaera neurrigabeetan hasten den adina ere.*

*d) Desagerraraztea edo mugatzea arriskuen eta abusuen kontsumo problematikoak, bai eta jokabide adikzioak sortzeko arriskua duten neurrigabeko beste portaera batzuk ere.*

*e) Kontsumo eta jokabideak neurrira ekartzeko eta erantzukizunez jokatzeko jarraibideak sustatzea, horiek, neurrigabekoak direnean, adikzioak sortzeko arriskua baitakarte.*

#### 15. ARTIKULUA. Prebentzioa familiaren esparruan.

*- Familia funtsezko elementu bat baita seme-alaben heziketan eta prestakuntzan eta adikzioak ekiditeko estrategien, balioen, trebetasunen eta gaitasunen transmisioan, interbentzio eta programa batzuk erabiliko dira gurasoak edo tutoreak sentsibilizatzeko aldera, ohar daitezzen zer-nolako garrantzia duen beren rola haurtzaroaren eta nerabezaroaren garaian babes-faktoreak sustatzeko orduan.*

16. ARTIKULUA. Prebentzioa esparru komunitarioan

- *Esparru komunitarioko prebentzioak, lehentasunezkoa izango denak, biltzen ditu populazioan edo interes handiko taldeetan eragin handiena duten baliabideak eta pertsonak, hala nola ikastetxeak, gizarte- eta kultura-zerbitzuak, gazte-, kultura-, kirol- eta boluntarioritza-elkarteak, profesionalen kolektiboak eta lantokiak.*

- *Komunitatearen esparruko prebentzioa batez ere udalek eta mankomunitateek, haien eskumenen arabera, egingo dute, pertsona eta komunitateari eskaintzen dizkieten zerbitzuen hurbiltasuna dela eta.*

17. ARTIKULUA. Hezkuntzaren esparruan

- *Eskola-eremua funtsezkoa da pertsonak, haurtzarotik eta gaztarotik, bere osasun eta ongizateari lotutako gaitasun egokiak garatu ditzan, era eraikitzailean eta norberarekin eta besteekiko modu begirunetsuan. Hori dela eta, hezkuntza-esparrua funtsezko zutabea da prebentziozko jardueretan.*

18. ARTIKULUA. Prebentzioa arrisku handiko egoeretan dauden adingabeen eta gazteen eremuan.

- *Kontsumo problematikoak eta adikzioak eragin ditzaketen arrisku handiko portaera neurrigabeak dituzten adingabeei eta gazteei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak haien egoerara egokiturako prebentzio- eta interbentzio-programak garatuko ditu, non parte hartu ahal izango duten prebentzioan espezializatutako entitateek edo bitartekoek eta bitarteko sanitario eta sozialek, bai eta adingabearen familiak ere*

22. ARTIKULUA. Prebentzio kirol, aisia eta denbora librearen esparruan.

- *Osasun, gazteria, kirol, kultura eta hezkuntza arloetako eskumenak dituzten euskal administrazio publikoek denbora librea erabiltzeko ereduaren inguruko politika integrala sustatuko dute, substantzien kontsumoaren, jokabide adikzio-eragileen eta jokabide-adikzioak sor ditzaketen beste arrisku edo portaera neurrigabeen ordezkotzat aukerak eskaintzeko, bereziki gazte eta nerabeen artean.*

## ESKAINZAREN MURRIZKETA

26. ARTIKULUA. Edari alkoholduen publizitatea.

*- Publizitatea ezingo da adingabeei eta haurdunei zuzenduta egon, eta bertan ezin izango dira adingabeak edo haurdunak edari alkoholduak kontsumitzen agertu.*

27. ARTIKULUA. Edari alkoholduak sustatzea.

*- Edari alkoholduen gehiegizko kontsumoa eragin dezaketen sustapenak debekatuta egongo dira; batez ere, edari alkoholduak bertan kontsumitzeko saltzen diren establezimenduen barruan egindako eskaintzak, sariak, zozketak, konkurtsoak edo prezio-murrizketak.*

*- Adingabeen arteko edari alkoholduen sustapena debekatuta egongo da, edozein bitarteko erabilia: kartelak, prospektuak, gonbidapenak banatuta, edota edari alkoholduak, horien markak, enpresa banatzaileak edo horiek kontsumitzen diren establezimenduak aipatzen dituzten objektuak banatuta.*

28. ARTIKULUA. Edari alkoholduen publizitatea egitea barruan eta kanpoan.

*- Debekatuta egongo da 20 gradu baino gehiagoko edari alkoholduen kanpoko publizitatea egitea.*

*- Gainera debekatuta egongo da edari alkoholduen kanpoko publizitatea Haur Hezkuntzako eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen sarrerako atetik 100 metro lineatik behera dagoen distantzia batera kokatutako euskarrietan.*

30. ARTIKULUA. Edari alkoholduen beste publizitate mota batzuk.

*- Debekatuta egongo da edari alkoholduen publizitatea egitea hezkuntzako edo gizarteko ekitaldietan edo haiek babestekoetan.*

*- Debekatuta egongo da kirol- edo kultura-ekitaldietan eta haiek babestekoetan 20 gradu baino gehiagoko edari alkoholduen publizitatea egitea.*

31. ARTIKULUA. Edari alkoholduen banaketa eta salmenta.

*- Debekatuta dago adingabeei edari alkoholduak saltzea.*

*- Debekatuta dago alkohola saltzea: 18 urtera arteko ikasleentzako ikastetxeetan, kirol-lehiaketak egiten diren instalazioetan eta zentro sanitario, soziosanitario eta zerbitzu*

*sozialetakoetan, kalean, salbu eta udalek baimendutako terrazetan, mahai hankabakarretan edota ekintza eta jardueretan.*

*- Alkohola saltzen EZ den lokaletan debekuaren berri agertuko da. Saltzen lokaletan, adingabeei saltzeko debekua agertu beharko da.*

32. ARTIKULUA. Edari alkoholduak zerbitzatzaren diren establezimenduetan sartzea eta egotea.

*- Debekatuta egongo da 16 urte baino gutxiagokoak edari alkoholduak zerbitzatzaren dituzten establezimendu publiko itxietan sartzea eta egotea, hala nola tabernetan, dantzalekuetan, diskoteketan, ikuskizunetan, jolas-areto publikoetan eta, oro har, edari alkoholduak saldu edo kontsumitzen diren leku edo establezimendu guztietan, baldin eta guraso, tutore edo arduradunekin ez badaude.*

33. ARTIKULUA. Edari alkoholduen kontsumoa.

*- Debekatuta egongo da 18 urtez azpiko pertsonen edari alkoholduak kontsumitzea.*

34. ARTIKULUA. Tabakoaren publizitatea.

*- Debekatuta dago tabako-produktuen publizitate guztia, kasu zehatzak izan ezik.*

38. ARTIKULUA. Tabakoa banatu eta saltzea.

*1. Tabako produktuen txikizkako salmenta eta banaketa tinbre-saltokien sarean edo tabako makinaren bitartez baino ezin izango dira egin.*

*2. Debekatuta dago 18 urtetik beherako pertsonen saltzea edo banatzea.*

*3. Debekatuta egongo da tabakoa eta tabako-produktu eta -gaiak 18 urtetik beherako pertsonen saltzea edo banatzea. Era berean, debekatuta egongo da 18 urtetik beherakoei tabako-imitazioak saltzea edo banatzea, horrek tabakoa edo tabako-produktu eta -gaiak erabiltzera bultzatzen baditza.*

40. ARTIKULUA. Tabakoa kontsumitzea.

*1. Debekatuta egongo da erretzea erabilera publikoko gune itxi eta erdi-itxi guztietan eta herritarrentzat zabalik dauden edo erabilera kolektibokoak diren lekuetan, titulartasuna publikoa zein pribatua izan. Nolanahi ere, titulartasun pribatua duten erabilera publikoko gune itxi eta erdi-itxietan espresuki baimendu ahal izango da erretzea, bazkide gehienek erabakiaren bidez, entitate titularren jardueraren arautzen duten estatutu-arauetan jasota.*

*Entitate horrek irabazi-asmorik gabekoa izan beharko du, eta berorren helburu sozial edo jardueraren barruan ez da egongo edozein ondasun edo produktu kontsumigarri merkaturatzea edo salerostea.*

*2. Baita ere kirol-instalazioetan, baita erantsitako eremu itxi, erdi-itxi eta aire zabalkoetan ere. Aire zabaleko gune horietan ostalaritzako espazioen ondoko gelak jarri ahal izango dira, behar bezala mugatu eta seinalatuko direnak.*

*3. Debekatuta egongo da erretzea erabilera publikoko gune itxi eta erdi-itxi guztietan eta herritarrentzat zabalik dauden edo erabilera kolektibokoak diren lekuetan, titulartasuna publikoa zein pribatua izan.*

*4. Nikotina aske dezaketen gailuak: tabakoa bezala jartzen dute legeari begira.*

## **SENDAGAIAK**

48. ARTIKULUA. Sendagaiak.

*- Osasun Administrazioak, indarrean dagoen legeriak dioenaren barruan, arreta berezia jarriko du sendagaiak –baita estupefazianteak eta psikotropikoak ere– kontrolatzeko eta ikuskatzeko, hain zuzen ere ekoitzi, banatu eta denda edo botiketan saltzeko orduan. Halaber, gai horiek ekoizten, lantzen eta inportatzen dituzten laborategi, zentro edo establezimenduak, handizkako biltegiak eta farmazia-bulegoak ere kontrolatu eta ikuskatuko ditu.*

## **JOKAERAZKO-ADIKZIOAK**

50. ARTIKULUA. Ausazko joko-jardueren eskaintzaren mugak.

*1. Nahitaezkoa izango da joko-establezimenduetan eta joko-makinak dituzten ostalaritzako establezimenduetan informazio argia eta zehatza ematea erabiltzaileek jakin dezaten jokoa ez dela diru-iturri edo ogibide bat. hau da, aisialdirako aukera bat baino ez dela, eta, hargatik, era arduratsuan, kontrolatuan eta neurritsuan jokatu behar dela. Horretarako, informazio-materiala jarriko da jokalarien eskura, eta kartelak eta oharrak ere bai, ondo ikusteko lekuetan.*

2. *Establezimenduak, makina kopurua eta lokalen eraketa kontuan hartuko dituen joko-  
eskaintza orekatua eta koherentea planifikatzea, arreta jarrita bereziki adingabeak sarri  
ibiltzen diren tokietan.*

3. *Ausazko jokoen publizitatea mugatzeko neurriak*

- *Jokoa debekatzea adingabeei, legez ezgaitu direnei, jokoa debekatuta dutenen  
zerrendan agertzen direnei—debeekatuta duten jokorako— eta ordena, lasaitasuna eta  
jokoan aritzea eragozten dutenei.*

4. *Joko arduratsuari eta joko-debekuei buruzko sentsibilizazio- eta informazio-kanpainak  
egitea, kolektibo kalteberak babesteari begira, bereziki azpimarratuz ardurarik gabeko  
jokoaren ondorioak.*

51. ARTIKULUA. *Teknologia digitalen eta aplikazio berrien gehiegizko erabilera eragin edo sustatu  
dezaketen bitartekoen eskaintzari mugak jartzea.*

1. *Teknologia digitalen eta aplikazio berrien gehiegizko erabilerak eragin ditzakeen  
arriskuak prebenitzeko, administrazio publikoek neurri hauek hartuko dituzte. Bereziki  
Hezkuntza Administrazioak, eragile pribatuekin koordinatuta, haur eta gazteak babesteko  
jarduera eta programak gauzatuko ditu.*

2. *Artikulu honetako neurri guztiak aplikagarriak dira bai joko presentzialaren eskaintzari  
bai on line jokoaren eskaintzari.*

## **ASISTENTZI SANITARIO ETA SOZIOSANITARIOA**

52. ARTIKULUA. *Asistentzia sanitario eta soziosanitarioaren printzipio orokorrak.*

1. *Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Administrazioari dagokio osasun-arreta ematea  
adikzioak dituzten pertsonen edo sufritzeko arriskua daukatenei, eta kolektibo horri  
zuzendutako arreta soziosanitarioa gizarte-zerbitzuen sarearekin koordinatzea ere  
badagokio.*

2. *Euskal osasun-sistemaren zerbitzu-eskaintzaren osasun-prestazioak eta Euskadiko  
Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legean aurreikusitako zerbitzuak aintzat  
hartuta, arreta osoa emango zaie adikzioaren bat (substantziarekiko adikzioak zein jokabide-  
adikzioak) dutenek izan ditzaketen behar indibidualei. Arreta hori modu ekitatiboan  
emango da lurralde osoan, komunitatearen parte-hartze aktiboarekin eta, betiere, eremu*

*eta zerbitzuen arteko lankidetzaz eraginkorra bermatuz.*

57. ARTIKULUA. Arreta-sistema publikoen printzipio orokorrak.

*- Gizarte-zerbitzuen euskal sistemak erantzuna emango die adikzioak dituzten edo izateko arriskuan dauden pertsonen beharrei –substantzietan adikzioak zein jokabide-adikzioak–, gizarte-arretaren arloan. Horretarako, beharrezko diren lehen edo bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuak eratu dira, eta, zehazki, pertsonen, familien eta taldeen bazterketa-egoerak prebenitzeko eta artatzeko eta egoera horietan daudenen gizarteratzea bultzatzeko zerbitzuak, Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legean aurreikusitakoari jarraituz.*

*Zerbitzu horiek ematean, aipaturiko legean ezarritako printzipio, eskubide eta betebeharrak errespetatu dira, osorik, lege horretan araututako arreta pertsonalizatu eta esku-hartze ereduaren esparruari jarraituz, eta arau horrek esku hartzeko aurreikustenduen oinarritzeko prozedura aplikatuz.*

58. ARTIKULUA. Gizarte-zerbitzuen eremuan adikzioak dituzten edo izateko arriskuan dauden pertsonen arretan aplikagarri diren jardura-eremuak eta -irizpideak.

*1. Gizarte-zerbitzuen eremuan adikzioak dituzten edo izateko arriskuan dauden pertsonen arretan aplikagarri diren jardura-eremuak eta irizpideak.*

*2. Gizarte-zerbitzuen euskal sistemak, adikzioa duten edo izateko arriskuan dauden pertsonen zuzendutako arreta ematerakoan, honako lehentasun hauek izango ditu: Adikzioa duten edo izateko arriskuan dauden pertsonen gizarte-bazterketa eragiten duten kausak prebenitzea, eta pertsona horien autonomia mugatzen duten kausei aurre hartzea, arreta berezia jarrita zenbait faktoreri, hala nola adinari eta generoari, autonomia eta gizarteratzea sustatzea, gizarte-zerbitzuen euskal sistemak ekimenak sustatuko dituzten adikzioen fenomenoaz gizartean dagoen ikuspegia pixkanaka aldatzeko.*

## **EUSKADIKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ARTEKO ESKUMEN-BANAKETA**

68. ARTIKULUA. Udalen eskumenak.

*1. – Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dagokie, beren lurralde eremuan:*

a) Adikzioen udal-plana eta, oro har, adikzioen inguruko programak eta jarduerak egin, garatu eta exekutatzea, lege honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Adikzioen Planean eta, hala badagokio, foru-planean xedatutakoari jarraikiz.

b) Lurralde-eremu bakoitzean, adikzioen arloko aholkularitza- eta koordinazio-organoak sortzea eta horien funtzionamendu-araubidea egitea.

c) Dagokien lurralde-eremuan, adikzioen arloko sariak eta aintzatespenak kudeatzea.

d) Lege honetan aurreikusitako kontrol-neurriak betetzen diren ikuskatzea eta behatzea.

e) Ikuskatu eta zehatzeko ahala erabiltzea, lege honetan ezarritakoari jarraikiz.

2.– Emandako zeregin hauek burutzeko, udalek beren kabuz edo mankomunitateetan elkartuta jardun dezakete.

#### 69. ARTIKULUA. Aurrekontu-konpromisoak.

- Euskal Autonomia Erkidegoaren, foru Aldundian eta udalen aurrekontu orokorrek lege honetan ezarritako jarduerak gauzatzeko beharrezko kredituak aurreikusi beharko dituzte, bakoitzak bere eskumenen barruan, aurrekontu-erabilgarritasunen, onartutako programen eta xede horrekin izenpetutako hitzarmenen arabera.

#### 71. ARTIKULUA. Foru- eta udal-planak.

- Lege honen helburuei eta legea egiteko erabilitako irizpideei jarraituz, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Adikzioen Planaren edukiarekiko koherentzia gorde, foru- eta toki-planak plangintza-, antolamendu- eta koordinazio-tresnak izango dira, eta foru, udal eta udalaz gaineko eremuetan – bakoitzari dagokion mailan– adikzioen arloan garatzen diren programa eta ekintzen multzo ordenatua jasoko dute.

#### 72. ARTIKULU. Adikzioen Erakunde arteko Koordinazio Batzordea

2. Adikzioen arloko eskumena duen saileko sailburua izango da Adikzioen Erakunde arteko Koordinazio Batzordeko lehendakaria. Kideei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailetako ordezkariak –goi-kargudunak izango dira– eta foru-aldundietako eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko udaletako ordezkariak –goi-kargudunak edo hautetsiak izango dira–, betiere osasun, gizarte- politika, hezkuntza, kultura, gazteria, kirol, segurtasun, justizia, enplegu, kontsumo, berdintasun, lan eta merkataritza, joko eta adikzioekin zerikusia duten arloetakoak.

84. ARTIKULUA. Erretzaileen klub pribatuak.

- *Erretzaileen klub pribatuei, legez hala eratuta badaude, ez zaie ezarriko lege honetan xedatutakoa, erretzeko debekuari eta tabako-produktuen publizitateari, sustapenari eta babesari dagokionez, betiere beren egoitzen barruan egiten bada eta horietan bazkideak bakarrik baldin badaude.*
- *Xedapen honen ondorioetarako, erretzaileen klub pribatu izaera izateko, ezaugarri hauek izan behar dira: nortasun juridikoa izan behar du, ez du irabazi-asmorik izan behar, eta ez ditu kontsumitu litezkeen ondasun edo produktuak merkaturatu, saldu edo erosi behar.*
- *Erretzaileen klub pribatuetan ezingo da adingaberik sartu.*

95. ARTIKULUA. Ikuskatzeko eta zehatzeko eskumena

- *Osalan sortzen duen abenduaren 21eko 7/1993 Legean ezarritakoa eragotzi gabe, adikzioen arloan eskumena duen sailaren mendeko ikuskapen-unitateek eta, hala dagokionean, toki-erakundeek egingo dituzte lege hau betearazteko ikuskapenak.*
- *Lege honen ondorioetarako, ikuskapen-funtzioa betetzen duten langileak agintaritzaren agente izango dira.*
- *Zentro, bulego edo establezimenduetako arduradunek eta haien ordezkari eta enplegatuek ikuskatze-lana errazteko betebeharra dute, bulego eta instalazioetara sartzen utziz, eta, oro har, gertakarien ezagutza hobea eta ikuskapenaren helburua lortzera eraman dezakeen guztia eskura jarritz.*
- *Zehatzeko ahalmena honako organo hauek izango dute:*

a) Alkateek:

- *Edari alkoholdunei dagokienez, arau-hauste arinak eta larriak, publizitateari eta sustapenari dagozkien arau-hausteak izan ezik.*
- *Tabakoari eta nikotina aska dezaketen gailuei dagokienez, arau-hauste arinak.*

b) Adikzioen arloan eskumena duen saileko organoak:

- *Larri gisa tipifikatutako edari alkoholduen publizitateari eta sustapenari buruzko arau-hausteak.*
- *Tabakoari eta nikotina aska dezaketen gailuei dagokienez, arau-hauste larriak.*

## 3-MARKO TEORIKOA

Adikzioak kezka handia sortzen duen kausa anitzeko gizarte fenomeno konplexuak dira. Konplexutasun hau azaltzeko kontuan hartu beharrekoak dira adikzioen kausa eta garapen prozesuaren arteko elementuen elkarrekintza, baita horren eragina jasan dezaketen eremu eta arlo aniztasuna ere. Beraz, beharrezkoa da ikuspuntu orokor bat lortzeko perspektiba desberdinak kontutan hartzea.

Adikzio hauek denboran zehar aldakorrak dira, gizartearen sentsibilitatea, substantzia eta portaera berriak sortzen doazen neurrian jarrera sozial eta eredu berriak sortzen baitira. Hori dela eta interpretazio eredu desberdinak sortu izan dira fenomeno honi azalpen bat eman nahian, batez ere nerabeen eta gazteen kontsumo- prozesuak ulertzeko, eredu gutxi daudelarik helduen kontsumo-prozesuak azaltzen dituztenak. Hala eta guztiz ere, gazte eta nerabeentzat deskribatutako arrisku faktore asko helduentzako ere baliagarriak izan daitezke, eskolarekin erlazionatzen den argudioa izan ezik.

Nerabezaroan gurasoekiko independenteak diren erabakiak hartzen hasten dira gazteak, haurtzarotik eta helduen mundutik bereizteko beharra dute, beste gazte talde batzuekiko markatzeko beharra, kontraesan pertsonalak agertzen dira, eta “nortasun berria” lortzeko zailtasunak dituzte. Ondorioz, haurtzarotik desberdinak diren jokaera patroï berriak garatzen hasten dira, hauetariko batzuk arriskutsuak izan daitezkeelarik, etorkizunean nerabearen ongizatea eta osasuna baldintza baititzakete. Arrisku jokaera hauek nerabearen mina edo arriskuan egotea eragin dakioke, nahiz eta arrisku maila aldakorra izan.

Familiak, eskola eremuak eta berdinekiko taldeak nerabeek arrisku jokaera hauek hartzeko edo arauak puskatzeko duten joera baldintza ditzakete, baita gaztearen nortasun ezaugarriek edota ezaugarri indibidualek ere, hala nola auto-irudia eta sentsazio desberdinen bilaketa. Kontutan hartu behar da arrisku jokaera hauek ez direla ez homogeenak, ez eta estatikoak ere. Denboran eta espazioan zehar aldakorrak izan ohi dira. Hau dela eta garrantzitsua deritzogu arrisku jokaerak hartzeko joerak baldintza ditzaketen arrisku-faktore hauek zer eta zein diren zehaztea.

Carmen Arbexen arabera, “arrisku-faktoreak baldintza soziokulturalak eta ezaugarri indibidualak dira, bat egiten dutenean, une jakin batean, urrakortasuna handitzen dutenak”, eta ondorioz, gehiegizko kontsumoa edota kontsumo arazotsua eragin ditzaketenak. Beste era batean

esanda, nerabe batzuek jokabide gatazkatsuei eusten diete arrisku-faktore deituriko aldagai hauen bidez.

Bestalde, babes-faktoreek adikzio arazoak edo jokabide arriskutsuak hartzeko aukera txikitzen duten baldintza edo ezaugarriak dira. Beraz, esan daiteke pertsona bat arrisku egoeran dagoela, arrisku-ezaugarriak asko eta nabarmenak dituenean eta babes-baldintzak gutxi edo urriak direnean.

Arrisku-faktore hauek hiru mailatan bana daitezke: maila makrosoziala, mikrosoziala eta pertsonala.

#### **ARRISKU FAKTORE MAKROSOZIALAK (Ohikoak dira nerabe eta gazte gehienetan).**

- Drogen eskuragarritasuna, baita honen prezioa eta lege erregulazioa.
- Substantzia jakin batzuen kontsumoarekiko gizartearen jarrera tolerantia.
- Gizarte modernoaren balore batzuk kontsumoa erraztu dezakete (dirua eta arrakastaren bilatzea, etorkizunerako espektatiben faltak, indibidualismoa eta solidaritate falta ...).
- Kalitatezko enplegu eta denbora libre osasuntsuaren falta, zeina ohitura ez osasungarriak hartzeko joera eragin dezaketen.
- Drogen inguruan argudio desberdinak oker erabiltzea (kontsumitzailea substantziaren biktima dela esatea, drogekin zerikusia duten albisteetan tratamendu edo prebentzioari buruz ezer ez esatea, komunikabideetan droga hitza substantzia ilegalei zuzentzeko bakarra erabiltzea ...

### ARRISKU FAKTORE MIKROSOZIALAK (gertueneko ingurunearekin lotuta dago, familia eta berdinen taldeekin batez ere).

#### FAMILIA

- Kohesio eta klima afektibo baxua: familia arteko erlazio estua izateak droga kontsumoa izateko probabilitatea jaisten du. Hala ere geroz eta ohikoagoak dira gatazka handirik gabeko familien seme-alabek kontsumoaren moduko jarrerak izatea.
- Familia eremuan drogak kontsumitzea: gurasoek egiten dutena seme-alabek errepikatzea eta ondorioz kontsumorako joera izatea.

#### ESKOLA

- Integratuta ez sentitzea, ondorioz kontsumorako joera duten ikasleekin elkartzeko joera.
- Eskola eremuan drogak kontsumitzea, irakasleen kontsumoak (tabakoa) ikasleengan eragina izatea.

#### BERDINEN TALDEA

- Lagun taldeetan substantziak kontsumitzen hastea, honez gain nerabeak taldearekiko izan dezakeen gehiegizko menpekotasuna, eskaintza ukatzeko gaitasun falta ...

### ARRISKU-FAKTORE PERTSONALAK (ezaugarri pertsonalak).

- Autoestimua baxua familian eta eskolan.
- Asertibitate eskasa, ondorioz eskaintzen aurrean ezetza esateko gaitasun falta.
- Sentsazioak bilatzea: jokabide arazotsua sentsazio berri eta bizien behar handiaren emaitza izan daiteke, modu egokiagoan behar hori adierazteko aukerarik ematen ez duen giroarekin konbinatuta.
- Emozioen kontrol baxua: kasu batzuetan substantzien kontsumoa edota jokoak eta apustuak ondoez emozionala arintzeko erabil daitezke. Tentsioa murriztearen edo auto-terapiaren hipotesia.
- Oldarkortasun handia: pentsatzeko gaitasun eza, berehalakotasuna (sariak atzeratzen eta horien zain egoten ez jakitea).
- Arauak hausteari mesede egiten dioten sinesmenak, jokabideak eta balioak: ingurunean eta taldean gehiegizko garrantzia ematen zaio jokabide horien prebalentziari eta uste dute jokabide hori ohikoa dela beraien inguruan.
- Onarpen sozialaren beharra, eta talde barruan autonomiaren falta.
- Drogekiko ezagutza falta, eta hauen ondorio positiboen inguruko espektatiba faltsuak.

Adikzioaren eta kontsumoaren arazoari erantzun zehatz eta eraginkorrak luzatzea da Oñatiko Adikzioen Tokiko Prebentziorako Planaren helburua. Horretarako Eusko Jaurlaritzaren Adikzioen VII. Plana hartuko dugu oinarritzat, zeina plan honen oinarria osatzen duten esparru kontzeptualaren ikuspegia biltzen baitu.

### EUSKO JAURLARITZAREN ADIKZIOEN VII. PLANA.

Jarraian azalduko den grafikoak Eusko Jaurlaritzaren Adikzioen VII. Planaren oinarriaren kontzeptuzko esparruaren ikuspegia jasotzen du.



### PREBENTZIO PLANA:

Prebentzioa komunitateak bultzatutako estrategia multzoez osatuta dago, adikzioei aurre hartuaz haiek gutxitzea duelarik helburu. Honetarako, ekintzen hartzaile diren biztanleen arabera, lau maila nagusi bereiziko ditugu: unibertsala, selektiboa, egokitua eta zehatza.

- Unibertsala: Biztanleei orokorrean, edo arrisku-faktoreekin identifikatu gabeko pertsona talde handi bati zuzendutako programak eta ekintzak dira.
- Selektiboak: Biztanle talde jakin bati zuzendutako ekintza multzoa, da. Aipatu biztanle multzoa drogekin loturiko arazoak sor ditzaketen arrisku-faktoreen menpe dago, datu objektiboen arabera (epidemiologikoki edo bestelako ikerketa edota balorazio teknikaren batek emandako datuak).
- Egokituak: Droga kontsumitzen duten (kontsumitzaileak nahiz esperimantatzaileak) eta bestelako portaera-arazoak dituzten lagunei bideratutako programak dira. Beraz, arrisku handiko pertsonen bideratuak daude. Programa hauen helburua drogen kontsumoa murrizteaz gain, kontsumoaren ondoriozko arazoak murriztea ere bada, baita drogen gehiegizko erabilerak ahal den gehien atzeratzea ere.
- Zehatzak: Drogazaletasun arazoak dituzten lagunei bideratutako prebentziozko esku-hartzeak, asistentziakoak edo gizarteratzekoak barne hartzen ditu. Kasu honetan arriskuak substantziaren erabilerak eragin ditzaken osasun eta segurtasun arazoak dira.

Prebentzio lan hau ondorengo ezaugarriek osatzen duten eredu komunitarioren arabera egingo da.

- Komunitatea lurralde agente eta esku-hartze hartzaile gisa.
- Tokiko eremua, bultzatu beharreko proposamenen agertoki artikulatzaile bezala.
- Antolatutako komunitatearen dinamizazioa, inplikaturako gizarte entitateen arteko sarea bultzatuz.
- Inplikaturako kolektibo ezberdinen arteko koordinazioa bultzatzeko topaketa eremuak sortuz.
- Gizarte bitartekariak edo prebentzioaren momentu garrantzitsuetan parte hartzen duten pertsonen garrantzia.
- Giza agente desberdinei prebentzio estrategia desberdinei buruzko formazioa eskaintzea, hauek beraien lan eremurako egokiak izango direlarik.

Parte-hartze komunitarioari esker honako hau lortuko dugu:

- Benetako eta pertzibitutako arazoaren errealitatearen ezagutza zehatzagoa eta fidagarriagoa eskuratzea.
- Prebentzioa komunitateko eremu desberdinetan normalizatu eta integratu, perspektiba integral eta zeharkakoa aurkeztuz.
- Jardueren eraginkortasuna hobetu.
- Prebentzio arloan planteamendu proaktiboak bultzatu, ez bakarrik erreaktiboak.

Prebentzioa gauzatzeko esku-hartze eremuak ez dira toki espezifikoak bakarrik (eskola, familia, denbora libre). Bizi estilo desberdinen garapenean eragin dezaketen eremu guzti horiek dira egokiak prebentzioa egiteko.

Aipatu bezala, egun ez dago teoria zehatz bat drogen kontsumoa azaltzen duenik. Beraz, gure lanak ere eredu desberdinak aintzat hartuko ditu; kompetentzien eredu, eredu biopsikosoziala eta eredu ekologikoa. Hiru eredu hauek elkar osagarriak dira, eta egun aplikatzen diren prebentzio programak euskarri hartzen dituen oinarri teorikoak barne hartzen ditu.

## 4-ERREALITATEAREN ANALISIA

### 4.1. DATU KUANTITATIBOAK


#### **4.1.1 EUSTAT (*Datu sozio-demografikoak*)**

Gauzatzen ari garen Tokiko Planaren oinarriak finkatzeko ezinbestekoa iruditzen zaigu, plana aplikatuko den herriaren berri izan eta horren inguruko datu kuantitatiboak izatea.

Oñati Gipuzkoako hego-mendebaldeko udalerrri bat da. Bergara, Arrasate eta beste herri txikiago batzuekin batera, Debagoieneko eskualdea osatzen du. Arabatik oso gertu (52 km Gasteiztik) eta Donostiatik 73 km-tara. 11.449 biztanle zituen 2022 urtean.


1.845. urtean Gipuzkoan anexionatu zen. Industriak ekonomian pisu handia du eta enpresa mota anitz daude herrian.

## Biztanleria adinaren eta sexuaren arabera. 2022



Beti esan izan da krisi ekonomiko garaian eta lan baldintza desegoki edota langabe egoerak adikzioen fenomenoan eragin zuzena daukela. Hau horrela interesgarria iruditzen zaigu herri baten analisia egiten ari garenean, herriak berak dituen zenbakien berri izatea. Hau horrela hauek dira Oñatik azkenengo urteetan eman dituen datuak.

Udalerriko langabezia tasa sexuaren arabera



Langabezia tasa Gipuzkoakoa (7.7) baina puntu bat baxuagoa du Oñatik (6.7), baina bailaran tasa 12,9raino igotzen da. Emakumezkoen artean puntu erdia altuago dago tasa (6.5 emakumezkoak, 7 gizonezkoak). Euskadi mailan ere 7.7n dago, puntu bat altuagoa.

Oñatik mugimendu komunitario oso handia duela esan dezakegu, herri bezala funtzionatzen duen herri bat dela antzeman baitugu, bai Gizarte Zerbitzu aldetik eta baita dauden talde eta elkarte guztiak kontuan hartuta. Taberna kopuruari dagozkienak, Oñatin 1.92 taberna dago 1000 biztanleko. Jatetxeak ere kontutan izanda 3.84 1000 biztanleko dago. Gipuzkoan dagoen kopuruarekin alderatuz ia erdia da.

Oñatin esan dezakegu ere jai anitz eta desberdin ospatzen direla. Herriko festaz gain, auzo askotan bere festa propioak ere ospatzen dira eta arrakasta asko izaten dituzte herritarren artean, bai heldu eta bai nerabe-gazteen artean. Maiatzan San Miguel txikiekin hasten dira, San Miguelak arte (iraila-urria), tartean auzo desberdinen jaiak ospatuz. Auzoetan ospatzen diren jaietan gaztetxoek kontsumoak izateko aukerak handitu dezakete.

Baina lehen esan dugun bezala Oñatiko errealitatea Oñatiko herritarretatik ezagutzea beharrezkoa iruditzen zaigu, eta horretarako alde batetik azterketa kuantitatiboa eta kualitatiboa egitea ezinbestekoa iruditzen zaigu.

Tokiko Plana gauzatzeko eskaintza egitean, alderdi kuantitatibo eta kualitatibo baten lanketari erreparatu nahi izan diogu, indar berezia egiteko alderdi kualitatiboari. Plan egoki bat egiteko fundamentu edota oinarri teoriko batekin kontatu behar dugunez, gure inguruan kontsumoen eta adikzioen inguruan datu base egokiena duten hiru datu basetara jo dugu, azken eguneratzeari begiratuta. Honetarako, Estatu mailan egiten den *ESTUDES* inkestak emandako emaitzak, Deustoko Unibertsitateak egin ohi duen *Drogas y Escuela IX* eta Euskadi eta Drogak inkesta erabili ditugu azterketa kuantitatibo gisara.


ESTUDES estatu mailan egiten den inkesta bat izanik, interesgarria iruditu zaigu datu hauek adieraztea, bertan EAEko datuak ere azaltzen direlako eta errealitate zabalagoko baten aurrean begiak irekitzeko balio duelako. Bestetik egia da, *Drogas y Escuela IXa* dela, gertuen dugun errealitatea adierazten duen inkesta, eta hau publikatu gabe dagoen arren, pandemia

egoera deitu baino lehen (CIVD19a dela eta) bertan argitaratu eta dauden datuen laburpen txosten bat azaldu zuten eta hau erabili dugu, EAEko gazteen kontsumoen datuak zehatzago adierazteko orduan. Egia da bi inkesta hauek gazteen kontsumoak biltzen dituztela eta TokikoPlan bat populazio osoari zuzendutako txosten bat izanik 2018an argitaratu zen eta 2017ko datuak biltzen dituen Euskadi y Drogas txostenari heldu diogu, Euskal Autonomia Erkidegoko populazioaren droga kontsumoen datuak biltzeko asmoz.

### 4.1.2. ESTUDES (2021)

Drogen Plan Nazionalak 1994 ezkerotik, 14 eta 18 urte bitarteko ikasleei bi urtetik egiten dizkien galdeketen emaitzak ateratzen ditu estatu mailan, eta hemen 2021an jasotako emaitzak adieraziko ditugu. Bertan ikusi daitekeen bezala substantziarik kontsumituenak alkohola eta tabakoa izaten jarraitzen dute, ondoren kannabisarekin jarraituta. Emakume eta gizonen kontsumoak bereizirik, azpimarragarriak dira, emakumeen kontsumoak handiak direla ohartzea, alkohola eta tabakoaren kontsumoak, kannabisean hau aldatzen delarik (baina ezberdintasuna ez da beste sustantzietan bezain adierazgarria).


Genero ezberdinek kontsumo ezberdinak izatea ohikoa da, askotan kontsumitzearen arrazoiak ezberdinak izaten baitira, eta honek kontsumo ezberdinak egitera eramaten baitituzte.



Hurrengo grafikoan ikusi daitekeen bezala, alkohola eta tabakoa dira kontsumoen hastapenak finkatzen dituzten substantziak, baina azpimarragarria da Hipnosedanteen datua ere (mutilen kasuan 13 urtetara jetsi delarik), alkohola (14 urte) eta tabakoaren (14,1 urte) adin tarte berean kontsumitzen hasten direlako, sendagileak errezetatuta edota errezetatu gabe galdetzean lortutako emaitzak nahiko antzekoak izanik. Orain bi urte lortutako datuetan zertxobait atzeratu dela kontsumitzen hasteko adina ohartu ginen eta azken datuen arabera hau mantentzea lortu delarik.

Ondoren substantziaz substantzia joango gara espezifikoagoak eskaintzen.

## Edad media de inicio en el consumo




## ALKOHOLA

Alkohola 14-18 urte bitartekoen artean kontsumo gehien dituen substantzia da. Adin txikikoen datuak ditugula kontuan hartuta nesken artean %73,3ak kontsumitu du alkohola eta mutiletan %67,8ak. Alkohola gure gizartean oso onartua dagoen substantzia da, eta estatu mailan ematen diren kontsumoak ere, lehen esan bezala oso antzekoak dira.

Azken urteetan, hala ere kontsumitzaileen kopuruak beranzko bidea hartu du eta nahizeta beheranzko bideak “mantsotu” egin direla adierazi azken datuek ( bi puntu jaitsita) inertzia honi jarraitzea da bidea.


## Lugares donde han comprado alcohol los estudiantes de 14-17 años



Honako tauletan azaltzen diren datuak oso esanguratsuak direla iruditzen zaigu gaur egungo errealitatea ulertzen lagunduko baitigu. Kontuan hartu behar dugu COVID19aren


agerpenak aldaketa nabariak eragin dituela, eta oso esanguratsua da nola aldatu den alkohola erosteko zeukaten ohitura. Diskoteketan %51,9ak lortzen zuen alkohola, hau %15,9a jeitsiaz, baina gauza ez da legea betetzeari ekin diotela edo baizik itxita egon direla pandemiak iraun duen bitartean, begiratu gero ohartzen gara, adin txikikoen artean etxean eginiko kontsumoak gora egin duela, konfinamendu egoera arrazoi bat izanik.

Gainera mozkor kopuruak ere ezberdinak dira adin tarte ezberdinetan: 14 eta 15 urteekin neskek dira gehiago mozkortu direnak, eta 16 urterekin bai mutil eta bai nesken mozkor kopuruak bateratu egiten dira, mutilen datuak hemendik aurrera neskena baino handiagoak izanik (gutxigatik baino mozkortzen diren mutilak gehiago dira).




### TABAKOA

Tabako erretzaileen %55a emakumezkoa da, eta erretzaileen %35,1aren gurasoak jakinen gainean daude seme-alabak erretzaileak direla. Gaur egungo errealitatea aldatu egin dela ikus dezakegu, lehen kaxetan saldutako tabakoaren kontsumoa altuago zen eta "liatzeko" ren erabilera baxuagoa, datuak norabidez aldatu egin dira, nahiz eta "liatze"ko tabakoaren kontsumoa baxuago izaten jarraitu (%22,5a) asko igo da azken urteetan, kaxetako tabakoa erretzen dutenak %28ko portzentaje dauka.



Aurreko inkestan puntu bat igo zuen tabakoaren kontsumoak, aurten ere tendentzia pixka bat beheraka izan da, emakumezkoen kasuan mantendu baina gizonezkoenean 1,5 puntu jaitsi da. Eguneroko kontsumoan ere emakumezkoen kontsumoa handiagoa da mutilena baino, adin tarte guztietan.



Gaur egun kontutan hartu beharreko beste fenomenoak, (batez ere adin txikikoez ari garenean) zigarro elektronikoaren ingurukoa da. Fenomeno berria izanik, adingabetan eragina izan duela ikus dezakegu, kuriositatea asetzeko edota hain “txarrak” ez direlako baieztapenak erabiltzen baitituzte kontsumoaren arrazoi bezala. Datuak izugarri igo dira, 2016an %20ak probatu zuen zigarro elektronikoa, 2019an %56a igo da, ia hirukoitzuz. Azken inkestan, 2021ekoan, jaisteko tendentzia ikusi da, 3 puntu gutxiago emakumezkoen artean eta ia 7 puntu gizonezkoen artean. Gainera datu oso interesgarria adierazten da: zigarro elektronikoa kontsumitu izana, ondoren kajetilako zigarroaren kontsumoan erortzeko arrazoia da, tabako erretzaileen %80ak zigarro elektronikoa kontsumitzailea izan delarik.

## Consumo de cigarrillos electrónicos (CE)


### Perfil consumidores

14-18 años, últimos 12 meses


→ Sexo: 55,3% hombres

→ Padres les permiten fumar: 30%

(20,3% total estudiantes)




### Tipos de CE alguna vez en la vida



Prevalencia CE últimos 30 días: 8,1%

Prevalencia CE últimos 12 meses: 22,8%

Prevalencia CE alguna vez en la vida: 44,3%



ESTUDIOS 2021. OEDA


## KANABISA

Kanabisa substantzia psikoaktibo ilegal kontsumituena da 14 eta 18 urte bitartean, %28,6ak noizbait kontsumitu izan duela adieraziaz, hori bai 2016a geroztik jaitsierako tendentzia ikusi da ia 5 puntutan. Urte askotan zehar mantendu den bezalaxe kontsumo hasiera 15 urteetan dago finkatua.

Parte hartu duten 14 urteko ikasleen %11,5ak noizbait kontsumitu duela adierazi du, ondoren datu hauek adinean aurrera joanaz portzentajeak ere gorantz eginaz, 18 urterekin %50ak kontsumitu izan duela baieztatuz.

Emakume eta gizonezkoen artean ere ezberdintasunak agertzen dira, nahiz eta 14 urterekin datuak antzekoak izan (%11 eta %12,4ak kontsumitu dute) adinean aurrera kontsumitu duten gazteen portzentaia ezberdina da, hau da, adinean aurrera joan ahala neska izatea babes faktore bezala identifikatu dezakegularik (18 urteko mutilen %51,5ak kontsumitu du noizbait, eta nesketan %48,5a). Mutilen kanabisaren kontsumoa erlazionatuago dago jarrera eta ekintza arazotsuekin nesken kontsumoan baino, hau da, kurtsoa errepikatzea, gurasoekin arazoak izatea... gehiago eragiten die mutil kontsumitzaileei neska kontsumitzaileei baino.

Figura 20. Prevalencia de consumo de cannabis entre los estudiantes de Enseñanzas Secundarias de 14-18 años, según sexo y edad (%). España, 2021.



Azken 30 egunetan kontsumitu dutenei begiratzen badiegu, hauek 3 eta 4 porro bitartean kontsumitzen dute. Mutilen kasuan kontsumoa intentsiboagoa da, neskek erretzen dutena baino porro bat gehiago erretzen baitute egunean (3,7 porro mutilek eta 2,7 porro neskek).

Tabla 62. Características del consumo de cannabis de los estudiantes de Enseñanzas Secundarias de 14-18 años que han consumido cannabis en los últimos 30 días, según sexo (%). España, 2016-2021.

|   |   | 2016 | 2019 | 2021  |        |       |
|---|---|------|------|-------|--------|-------|
|   |   |      |      | Total | Hombre | Mujer |
| Tipo de consumo de cannabis                               | Principalmente marihuana (hierba)         | 51,1 | 43,8 | 49,8  | 47,7   | 52,2  |
|   | Principalmente hachís (resina, chocolate) | 12,2 | 19,3 | 16,7  | 15,3   | 18,4  |
|   | De los 2 tipos                            | 36,7 | 37,0 | 33,5  | 37,1   | 29,4  |
| Mezcla de cannabis con tabaco                             | Sí  | 82,4 | 87,1 | 87,7  | 86,4   | 89,2  |
|   | No  | 17,6 | 12,9 | 12,3  | 13,6   | 10,8  |
| Media de porros consumidos el día que se consume cannabis |   | 3,4  | 3,4  | 3,3   | 3,7    | 2,7   |

FUENTE: OEDA. Encuesta sobre Uso de Drogas en Enseñanzas Secundarias en España (ESTUDES).

Kanabisa kontsumitzeko moduari begiratzen badiogu, %49,9ak marihuana erretzen du, bereziki neskek eta adinez gaztetxoek direnak. Beste %33,1ak marihuana eta haxixa modu indiferentean kontsumitzen dutela adierazi dute, hau bereziki mutil eta 15 urteko gazteen artean zabalduna dagoelarik. Hala ere, %87,8ak kanabisa tabakoaren nahastuta kontsumitzen du.

Azpiragarria da 14-18 urte bitartean haxixak izan duen jaitziera 2016 arte egon den igoerakadarekin alderatuz.

## Consumo de cannabis



### Perfil consumidores

14-18 años, últimos 30 días Salidas nocturnas

Hombre: 54,1%


— Total 14-18 años

— Cannabis 14-18 años




### Prevalencia de consumo

últimos 30 días



### Prevalencia de consumo

últimos 12 meses




Beste datu bat atentzioa ematen duena da EZ erretzaileen artean zenbatek probatuko zuten legala izango balitz. % 18,2Ak probatuko zuen. 2016tik aurrera galdera honetan 6 puntuko igoera egon da.



HIPNOSEDANTEAK

Hipnosedanteen datuak nahiko adierazgarri dira, hasieran esan dugun bezalaxe uste duguna baino kontsumo handiagoak baitituzte, 14 urterekin izanik kontsumo hastapenak. % 13,6ak noizbait kontsumitu izan ditu (errezetarekin edo gabe). Sexuari dagokionez, nesken kontsumoa handiagoa dela adierazi behar dugu, kontsumitzaileen artean %64,4ak neskak dira.


Inkestako serie guztietatik kontsumo handienak eman den urtea izan da.



KOKAINA

Kokaina kontsumoa minimo historikoetan dagoela adierazi behar da, noizbait kontsumitu dutenen datuak %3tik beherakoak izan direlarik, eta azkenhilabetean kontsumitu dutenak %0,9a direlarik. 2004tik datu baxuenak dira.

Lehen kontsumoak 15,3 urterekin ematen dira, zenbaki oso iraunkorra.




FUENTE: OEDA. Encuesta sobre Uso de Drogas en Enseñanzas Secundarias en España (ESTUDES).

Hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala, neska eta mutilen arteko kontsumoak ezberdinak dira, mutilen kontsumoak handiagoak izanik. Hemen aisialdian dituzten ohiturak esanahi handia daukate, goizeko 3tatik atzera etxeratzen direnenak kontsumitzaileen %70,8a direlarik. Honez gain, kokainarekin polikontsumoa (droga bat baino gehiago kontsumitzea) egitea zeharo normalizatua dago.

Prevalencia de consumo

últimos 12 meses



*BESTE DROGAK*

Estiari dagokionez, 2002an izan zuen kontsumo gorena eduki zuen garaia, eta azken urteetan beheranzko inertzia hartua du, 2016an baina zertxobait gehiago %2,3an finkatuta. Azken urteetan igoera txikia ikusi dugu. 2019an 2,6, 2021ean 3,1. Kontsumitzen hasteko adina 15,2 eta 15,8 urte bitartean dago finkatuta, mutilak izanik gehiago kontsumitzen dutenak (%3,4ak noizbait kontsumitu du mutiletan, nesken %2,8an finkatu direlarik)

Anfetaminari dagokionez, estasiarekin bezalaxe kontsumo altuenak 2002an izan ziren, orduz geroztik beheranzko bidea hartuta duelarik (%5,5tik 2002an %2,9a 2019an, 2,7 2021ean), eta lehen kontsumoa 15,3 urtean finkatuta dagoelarik. Mutilek egin ohi dituzten kontsumoak neskenak baino handiagoak dira, mutilen kontsumoak neskenak bikoiztuz, adinean aurrera doazen heinean kontsumoak ere handiagoak izanik.

Haluzinogenoekin ere dinamika berdina jarraitzen da, mutilen kontsumoak dira nagusienak eta adinean aurrea doazen heinean kontsumoak handiagoak dira, azken urteetan beheranzko bidea hartu duelarik.


Heroinak ere datu oso antzekoak ditu, baina adierazgarria honakoa da, estigma aldetik heroinak dituen baieztapenak beste substantziak ez dituztela, ohituraz eginiko kontsumoak ondorio latzak ekar ditzakeela baieztatuz.

Arnasgarriei begiratuaz (kola, disolbentea, popperra, gasolina...) ditugun datuak ez dira adierazgarri, nahiz eta kontuan hartu beharko liratekeen, azken datuetako altuenak jaso dira aurtengoan (%1,8ak noizbait kontsumitu duela adieraziz), baina kopuru oso txikia izanik, ondorioetara iristeko zailtasunak daude.

GHBari begiratzen badiogu, ere oso datu txikiak dira esku artean dauzkagunak ez direlarik %1ra iristen, datu hauek beheranzko inertzia hartuak daukate azken urteetako datuetan.

Metanfetaminari begiratuaz (kristala, meth, ice...), 2016an galdetu zen lehendabiziko aldiz substantzia independente gisara, ordura arte substantzia berrietan sartzen zirelarik. Hau horrela esan daiteke azken urteetan jasotako datuak alderatuaz azken hauetan dezima bat jaitsi dela (%1,6tik %1,5era).

## Consumo de otras drogas




### ARRISKU PERTZEPZIOA

Arrisku pertzepzio handienak heroína, kokaina edota estasia bezalako substantziek dituzte. Hauek urtero agertzen dira.


Arrisku pertzepzio txikiena berriz alkoholak dauka, nahiz eta kontzientzia gehiago daukatela dirudien, adibidez, 5-6 zerbeza edota kopa hartzeak duen arrisku pertzepzioa handiagoa da datu hauetan ikus daitekeen bezala, nahiz eta 2021ean pixka bat jaitsi (%76,8a 2018, 2021ko %75,7a). Kannabisari dagokionez berriz %88,7ak dio ohiturako kontsumoak ondorio negatiboak ekar ditzakeela, nahiz eta datu nahiko handia izan, handitu egin da portzentaia puntu batean.

Droga legalen artean hipnosedanteak dira arrisku pertzepzio handiena dutenak, maximo historikoa izanik aurtengoa (%88,6). Tabakoaren kasuan %93,9k uste du egunero tabakoa erretzeak kalte handiak sortzen dituela osasunean, inoiz baino altuagoa da portzentaia.



### ESKURAGARRITASUNA

Alkohola eta tabakoa dira eskuragarrienak diren substantziak, %90ak ez du inongo arazorik ikusten edari alkoholunak eta tabakoa lortzeko. Hurrengo eskuragarriena (ilegalen artean lehena) kanabisa da. 2021.urtean eskuragarritasuna jaitsi da eta %80an dago. Beste substantzia ilegalak lortzeko oso zailak direla adieraziaz (%75-85ak oso zaila ikusten duelarik lortzea).



### *INTERNETEN ERABILERA*

Gaur egun substantziarik gabeko adikzioak ere berebiziko garrantzia daukate, fenomeno berriak medio. Interneten erabilera begiraten badiogu, erabilera oso zabaldua daukagu, askok eta askok hezkuntza zentroan bertan ere erabiltzen baitute, baina hemen adierazten dena modu konpulsiboan eta kontrolik gabe egiten duten erabileraren inguruan bildutako datuak dira.

Ikus daitekeen bezala, adinean aurrera erabilera konpulsiboak ere gora egiten du, nahiz eta 2016ko datuak 2018an beheranzko bidea hartzen duten, puntu batean, 2021.urtean goraka egiten du berriro eta inoiz baino datu altuagoak ditugu.


Gainera sexuari begiraten badiogu, neska eta mutilen artean ezberdintasunak antzeman ditzakegu, nesken kasuan %28,8koa den bitartean mutilen artean %18,4koa da.

## Uso compulsivo de internet (CIUS≥28)



### Prevalencia uso compulsivo de internet (CIUS≥28)


entre todos los estudiantes de 14-18 años



## APOSTUAK


Dirua jokatzeari begiratzten badiogu, mutilen artean zenbaki altuagoak dira bai online edota presentzial modalitatean. Hala ere, horrela iruditzen ez zaigun arren, modu presentzial gisara egiten dituzte apustuaren gehiengoak, nahiz eta adin txikikoek ez eduki horretarako eskumen legala. Hauek egiteko tabernetako makinak erabiltzen dituzte.

## Jugar dinero online




# Jugar dinero presencial


**Prevalencia jugar dinero presencial**  
entre todos los estudiantes de 14-18 años en el último año




## EDAD Y SEXO



**Evolución prevalencia jugar dinero presencial**



**Tipos de juego presencial según sexo**




**BIDEOJOKUAK**

Bideo-jokoek ere mutil izena daukate, alde handiaz gainera, adinean aurrera doazen heinean gainera, erabilerak beheranzko bidea hartzen du, hau da, gehiago dira 14 urterekin bideo-jokoetan jarduten direnak gehiago dira 18kin ibiltzen direnak baino.

E-sporten inguruan, Online bidez kirola kontsumitzen dutenak ere mutilak gehiago dira neskak baino, bai ikusle gisara eta baita bertan apustu egiten ere. Honetarako gainera gerok eta lokal gehiago daude, nahiz eta bertara asko eta asko partidak ikustera joaten diren, ondoren apustu egitera “bultzatzen” dituzte, mutilen %50,9ak partidak ikusten dituzte eta hauetatik %66,6ak apustu egiten bukatzen dute.

### Jugar a videojuegos



### **4.1.3.DROGAK ETA ESKOLA IX (2018)**

Euskal Autonomia Erkidegoan 4-5 urtetik behin drogen erabileraren inguruan egiten den inkesta bat da, Deustoko Unibertsitateko Drogamenpekotasun Institutuak bideratuta. Bertan biltzen diren datuak EAEn matrikulatuta dauden ikasleei dagozkie (12tik 22 urte bitartera), Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak, Batxilerreko ikasleak eta oinarrizko lanbide hastapena eta erdi mailako lanbide heziketa ikasten ari diren ikasleak hain zuzen, 6000 ikasle inguruk hartzen dituelarik bere baitan.

Sustantziei dagokienez, gehien kontsumitzen direnen inguruan galdetu zaie, alkohola, tabakoa, kanabisa, kokaina, estasia, anfetamina, haluzinogenoak, heroina eta inhalagarri gisara ezagunak direnak. Banan bana joango gara hauen inguruan lortutako datuak azaltzen. Ondoren teknologia, sare sozial eta apustuen inguruko errealitateari erreparatuko diogulakoan.

#### **ALKOHOLA**

Alkohol kontsumoaren hastapena finkatzen duen adina 13,2 (14 urte) urteetan dago finkatua, esan daiteke DBH2-3 ikasturteetan izaten dela hastapen hori, eta 17 urterekin %90ak dio alkohola probatu duela. Garbi ikusten da, adinean aurrera doazen heinean geroz eta gehiago kontsumitzen dela alkohola, 18 urterekin goranzko joera hau zertxobait lasaituaz. Galdetutakoen herenak ez du alkoholik edaten, baina %9ak astero edateko ohitura dauka, 50tik 1k eguneroko kontsumo bat edukiaz (hau lanbide heziketakoen datu garbia dela ikus dezakegu).

Asteburuetan eta aste tartean egiten diren kontsumoak oso ezberdinak dira, lehen adierazi bezala, 10tik 1 bakarrik dauka aste tartean kontsumoren bat egiteko joera, asteburuetan 7ra iristen ez delarik. Asteburuetan gehiegizko kontsumoa egiten dutenak %20a dira, eta sexua hartzen badugu oinarri, ez da ezberdintasun handirik antzematen adin tarte ezberdinek dauzkaten kontsumo ohiturei dagokionean, hori bai, eguneroko kontsumoan mutilen kontsumoak hirukoiztu egiten du nesken kontsumoa.

Egiten ari diren ikasketei begira ere datu interesgarriak atera daitezke, batxilerra ikasten ari diren neskek direlarik kontsumo zenbaki altuenak adierazten dituztenak, mutilen oso antzekoa izan arren, ezberdintasun handiagoak dira oinarrizko lanbide hastapena ikasten ari diren nesken eguneroko kontsumoak gainontzeko neskekin.

Gehiegizko kontsumoari begiratzen badiogu (mozkorrei alegia), erdiak dio inoiz ez delamozkortu eta mozkortu direla diotenean lehenengo aldiz 14,3 urterekin mozkortu direla adierazidute, gehienak 15-16 urte bitartean egin duela adieraziaz. 18 urtetik aurrera kopuru hauekgorantz egiten dute; 5tik 2k diote hilero mozkortzen direla eta %1-2ak egunero. Azkenik, lanbide heziketakoak dira astero edota egunero mozkortzen direnaren (%4a , %1erairisten ez den errealitate batekin alderatuta) zenbaki altuenak adierazten dituzten profilak.

Neska eta mutilen mozkorraldiak alderatzen baditugu, oso datu antzekoak agertzen zaizkigu, sarritasunean daude ezberdintasun handienak (kasu honetan mutilak neskak baino gehiago), bereziki batxilerrean dauden mutilak eta erdi maila ikasten ari diren mutilak.

Azken datuekin alderatzen baditugu, noizbait mozkortu direnen datuak puntu batean egin dute gora (%45,3a 2011an eta %46,9a 2017an), azkenengo urtean mozkortu direnen eta azken hilabeteetan egin dutenen kopuruak beherantz eginaz.

### *EDARI ENERGETIKOAK*

Ohiturazko kontsumo handia duten substantziak dira hauek, kafeina kopuru altuagatik ezagunak direla (taurina bezala ezagunagoak).

Ikasleen %50ak kontsumitu ditu noizbait eta azken urtean, mutilen kontsumoak handiagoak izanik neskenak baino, bereziki adinean aurrea doazen heinean, 15-16 urte bitartean finkatuaz ohitura horiek (DBH4n edota OLH).

Substantzia honek berezitasun bat dauka, inkestatuaren artean ohiturazko joera baita alkoholarekin nahastuta kontsumitzea gazteen 10tik 1k egiten duen praktika hau, eta mutilen artean gehiago eginik neskek baino (baina ez dira "hutsik" kontsumitzen dituztenak baino handiagoak). Esan daiteke neskek kontsumitzean alkoholarekin nahastuta kontsumitzeko ohitura gehiago dutela hutsik baino, mutilen kasuan alderantziz izanik, gainera adinean aurrera joan ahala joera honek ere gorantz jarraitzen du.

## TABAKOA

Ikasleen 2/3ak ez du tabakorik kontsumitu inoiz, baina kontsumitzen dutenen %12,6ak egunero kontsumitzen du (lagin guztiaren %1a izanik), eta behin tabakoaren inguruan galdetuta, zigarrilo elektronikoaren inguruan ere galdetu zaie eta 3/4ak ez du sekula erabili tresna hori.

Neska eta mutilen kontsumoei begiratzen badiegu, ia ez da ezberdintasunik ageri; agian modu esperimentalean kontsumitzen duten neskak gehiago dira mutilak baino, baina ondoren ikus daiteke gehiago direla sarriago kontsumitzen duten mutilak. Adinean aurrea egin ahala, kontsumitzaileak gehiago direla ikus dezakegu, 18 urtetatik aurrea gorakada handia egiten baitu egunero kontsumitzen dutenen artean (17 urterekin %20ak erretzen du egunero).

Zigarrilo elektronikoari erreparatuz, %7,5ak bakarrik kontsumitu duela adierazi behar da, oso lagin txikia izanik, eta hauetatik %1,5ak "bapeatzen" duelarik astean behin. Baina finkatzen ari den moda bat izan daitekeela antzematen da, batez ere 15-16 urte bitarte dituztenen artean, hemen baita gorakada handiena jasaten duen adin tartea. Ez da ezberdintasunik antzematen neska eta mutilen kontsumoaren artean, kontsumorik handienak DBH ikasten ari diren ikasleen artean ematen delarik.

## KANABISA

Argi dago droga ilegalen artean gehien kontsumitzen den droga dela; ikasleen %33ak adierazi du noizbait probatu duela, 14,41 (15 urte) urte izanik hau egiteko batz besteko adina. Egunerokotasuneko kontsumo bat egiten dutenak 30tik 1a da, kontsumo gehien 16 eta 17 urteetako ikasleenak izanik (%50k kontsumoan hasia dagoela adierazi baitu). 17 urtetik aurrera 20tik batek egunero kontsumitzen du, eta adinean aurrera egin ahala, kontsumitzaile direnak intentsitate handiagoarekin kontsumitzen dute, 19 urtetik aurrera izanik kontsumo tasa altuenak.

Sexuari begiratzen badiogu, ezberdintasun handiak antzeman ditzakegu, bai probatu eta baita egunerokotasuneko kontsumo bat egiten dutenen artean. Bereziki kontsumo handietan antzematen dira ezberdintasun hauek, mutilak kontsumo handirako joera gehiago baitute. Hala eta guztiz ere, adierazgarria da OLHko neska kontsumitzaileen datuak mutilenak baino handiagoak direla, baina betiere kontuan izan behar dugu ponderazioan OLH ikasten ari diren nesken kopuruak txikiagoak direla mutilenak baino, hemen ateratako portzentaia handiagoa dela adieraziaz.

Azken urteetako kontsumoei erreparatzen badiegu, datuak beheranzko bidea hartu dute, noizbait probatu dutenak izan ezik, alkoholaren inertzia errepikatuaz. Hau da, kontsumitzen dutenen datuak beherantz egin dute baina probatu dutenak gorantz (3 puntutan).

### *KOKAINA*

Hemendik aurrea beste kopuru batzuekin jardungo dugu, orain arte aipatutako substantziak baitira kontsumo datu handienak adierazten dituztenak.

Gazteen 25tik 1k kontsumitu du noizbait kokaina, eta 50tik 1k egin du hileroko kontsumo bakarra, hastapeneko adina 15,25 (16 urte) urtetakoa izanik. 19 eta 20 urte bitartean hasten da goranzko bidea modu azpimarragarri batean egiten, gainera ikasketek ere zer esana daukatela ikusten da, 2. Batxilerreko ikasleak (%3,7ak) eta adin berdina duten lanbide heziketako ikasleek dituzten datuak (%18ak) oso ezberdinak baitira, lehenengoen noizbait kontsumitu izanaren datuak askoz txikiagoak izanik, bigarregokoekin alderatuta.

Neska eta mutilen kontsumo ohiturei begiratuta, mutil gehiagok kontsumitzen dutela esan daiteke. Hala ere, OLHn dauden nesken datuak mutilen datuen antzekoak dira.

Noizbait kontsumitu dutenen, azken hilabeteen kontsumitu izanaren, edota azken urtean kontsumitu dutenen datuak kontuan hartuz gero ikus dezakegu datuak beheranzko bidea hartu dutela azken 10 urteetan.

### *ESTASIA (metanfetamina)*

30tik 1k noizbait kontsumitu duela adierazten du, adina 15,1 urte izanik (16 urte). Hala ere, 17 eta 18 urte arte datuak ez dira kontuan hartu beharrekoak. 20tik aurrera datuak azpimarragarriak dira, adin honetako 5tik 1k probatu duela adierazten baitu, bereziki lanbide heziketa ikasten ari direnak dira gainera kontsumoak adierazten dituztenak, batez ere erdi mailakoak eta mutilak. Aldiz, nesken zenbakiak oso-oso baxuak izanik (eta orain arte bezala OLHko ikasle diren neskek dira kontsumitu izan dutenak).

*ANFETAMINAK (Speed)*

20 ikasletik batek probatu du bere bizitzan noizbait, eta 100 pertsonetatik 1k hileroko kontsumoa egiten du, probatzeko adina 15,1 urtetan finkatuta egonik (16 urte). 18 urtetik aurrera egiten dute kontsumoak gorantz (10tik 1k kontsumitu duela adierazten baitu) kontsumo altuenak 20 urterekin emanaz. Kontsumo altuenak Lanbide Heziketako ikasleen artean ematen dira kontsumo altuenak, batez ere mutilen artean. Neska kontsumitzaileen kasuan berriz, hauek OLHkoak izan ohi dira. Beste mailetan “kasualitateko” kontsumo bezala adierazten da.

Hala ere adierazgarria da Batxiler eta Lanbide Heziketakoen datu ezberdintasuna, hemen sexuaren arabera begira jarriz gero, ikus daitekeena honakoa da: batxilerra ikasten duten mutilen kontsumoak beste mutilen nahiko antzekoak direla, baina batxilerra ikasten ari diren nesken kontsumo (ia) inexistenziak, media asko jaisten duela.

*HALUZINOGENOAK (LSD)*

50tik ikasle batek probatu ditu substantzia haluzinogenoak, kontuan hartzeko modukoak ez diren datuak izanik eta honek media datuak ateratzeko zailtasunak sortuz (ez baitira %1a iristen). Hala ere kontsumitzen hasteko adina 15,02 urteetan finkatua dago (16 urterekin).

Noizbait probatu dutenak eta azken urtean kontsumitu dutenen datuak ez dira kontuan hartzeko modukoak. Izan ere, azken hilabeteko kontsumoaren datuak oso baxuak dira, eta ondorioz, ohiturazko kontsumoa ez dela existitzen esan daiteke, hau probatzen hutsean geratzen delarik. Joera honek 20 urte arte gorantz egiten du, hau da, adinean aurrera egin ahala droga mota hau kontsumitu duten gazteek gorantz egiten dute, baina 20 urtetik aurrera droga hau probatzeko interesak behera egiten du.

Sexuari erreparatzen badiogu, ezberdintasun handiak antzeman daitezke dagoen kontsumitzaile lagin txikirako, orain arte bezala, sexuaren araberako ezberdintasun txikienak OLHko neska eta mutilen artean izanik.

## HEROÍNA

%1ra ez da iristen heroína probatu duten ikasleen portzentajea, hileroko kontsumoa 200tik 1koa izanik, eta probatzeko adina 13,69 urteetan finkatuta dagoelarik (14 urte berez, baina modak 16 urteetan finkatzen du).

Heroinaren kontsumoaren inguruan desberdintasun handiak antzeman daitezke Lanbide Heziketa eta batxilergoko ikasleen artean, nahiz eta datuak oso baxuak izan. 16 urtetik aurrera hasten dira probatu dutenen datuak agertzen, gehiengoek 18 urterekin probatu dutela adierazten duten arren.

Neska eta mutilen arteko kontsumoekin orain arteko substantzia ilegalekin gertatu dena gertatzen da hemen ere, mutilen kontsumoak handiagoak direla neskenak baino, OLHko nesken kasuan izan ezik. Galdera bat planteatuaz, eskola porrota modu ezberdinean bizi al dute neskek eta mutilek? Eskola porrota arrisku faktorea dela erakuts al ditzake datu hauek? Nesken kasuan bereziki?

## INHALAGARRIAK (*arnasgarriak*)

Gazteen 50etik 1ek probatu dutela adierazi dute, hasteko adinez ez zaielarik galdetu.

Gainera gauza kurioa gertatzen da, adinean aurrea kontsumitu dutenen datuak ere gorantz egiten dute, baina ikasturtea kontuan hartzetan badugu, DBH4ko ikasleen artean eta ondorengo lehen ikasturtetan adierazten dira. Hala ere gauza inkoherentea gertatzen da, kontsumoak ez direlako 15-16 urteetan finkatzen, zaharragoak dira datu hauek adierazten dituztenak, "eskola porrota" bizi dutenen artean daudela ondorioztatu daiteke, errepikatzaile edota ikasketa erritmo ez ohikoa dutenen artean. Mutilen artean kontsumo handiagoak emanaz neskenak baino.

## JOKUA

4 joku mota bereizten dira, batetik, "tragaperrak", bestetik kirol apustuak, online egiten diren jokoak eta karta jokoak, ondoren item bat sortuaz "besteak" bezala.

DBHko ikasleen gehiengoak ez dute dirua jokoan dagoen ezertan parte hartzen (%80 gutxi gora behera). Hala ere parte hartzen duten gehiengoek kirol apustuak egiten dituzte (%9,3ak). Eta

neska eta mutilen erabilerari begiratzen badiogu, harrigarria da ezberdintasuna, mutilen erabilera handiagoa izanik neskena baino (bereziki kirol apustuak eta “makina tragaperretan” daude ezberdintasunak).

Adinean aurrera doazen heinean, ekintza hauetan inplikatzeko diren ikasleen kopuruak ere gora egiten du, 19 urterekin datuak orekatu eta beheranzko bidea hartzen dutelarik (17 eta 21 urte tartean daude dirua jokatzeko joera handienak). OLHtako ikasleak dira ohitura gehiena daukatenak batxillerrekoekin jarraituta. Badirudi zenbat eta urte gehiago eta daukaten diru sarrera berak ere asko eragiten duela joera honetan.

### *TEKNOLOGIAREN ERABILERA*

5tik 2ek aste tartean ez dute bideojokoaren erabilerarik egiten, jokatzeko dutenak ordu bat eta bien artean ibiliaz (ordu eta laurden batz besterik). Asteburuetan berriz jokalariek eta erabilitako denborak gorantz egiten du nabarmen (2h eta 6h egunean)

Online bidezko jokoei erreparatzen badiogu, galdetegia erantzun duten gehiengoek ez dute ekintza hau praktikatzen. Baiezkoa erantzun dutenen gehiengoak ordu bat eskaintzen diete aste tartez joko mota hauei; asteburuari dagokionez berriz, jokalariek ez dute gora egiten, baina bai eskaintzen dien denbora tartea.

Internetaren erabilera eta sare sozialei begiratzen badiogu, oso gutxi dira Interneten erabilera egunero egiten ez dutenak, honen erabilpena sare sozialak erabiltzeko egiten dutelarik bati-bat, egunean 2 orduko konexioak errez eginez. Asteburuetan interneta erabiltzen dutenen kopuruak zertxobait beherantz egiten du, baina erabiltzen dutenen denbora izugarri igotzen da (3h eta 40minutuko batz bestekoa izanik). Whatsapa bezalako aplikazioari begiratzen badiogu, aste tartean eta asteburutan eskaintzen diogun denbora tartea oso antzekoa dela esan daiteke, eta erabiltzen ez dutenen kopurua OSO txikia dela (aste tartean 3h eta 20minutu eskaintzen dizkie, asteburuetan 3h eta 40minutukoa izanik batz- bestekoa).

#### **4.1.4. EUSKADI ETA DROGAK (2017)**

Datu hauek Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, EAEko populazioak dituen sustantziekiko adikzio eta substantziarik gabeko adikzioen inguruan bildutako datuak dira, 15-74 urte bitarteko biztanleei 2014-2017 urte artean etxez etxe eginiko inkestarenak.

Hemen aurkeztuko dugun laburpen bat izango da, lehen esan bezala Oñatiko datu kuantitiboak ez izanik, Oñatiko herriko errealitatea datu ezberdinekin adierazteko asmoz.

#### *ALKOHOLA*

Alkohola da kontsumituena den droga, %93,2ak noizbait kontsumitu duelarik, 2006tik hasitako beherako joera hautsi eta goranzko bidea hartu duena berriz ere, hasteko adina zertxobait atzeratuaz (16,8an dago finkatua), hala ere gizon (16,2 urte). Emakumezkoetan (17,5 urte) ezberdintasunak antzematen dira, gizonezkoak kontsumo handiagoak eginaz emakumezkoak baino, baino azken datuekin alderatuta, gizon eta emakumezko kontsumitzaileen datuak geroz eta antzekoagoak dira, emakumeen kontsumoak gorantz eginez. Asteburu eta astean zehar egiten diren kontsumoak oso ezberdinak dira, garbi ikusiaz asteburuetan egiten diren kontsumoak handiagoak direla (asteartean eta asteburuetan kontsumitzen ez dutenen datuari begiratzen badiogu, asteburuan edaten ez dutenak, asteartean edaten ez dutenen erdiak dira). Asteburuetan gutxi edota gehiegi edaten dutela esaten dutenak gehiago dira 15-34 urte bitartean 34-75ra baino. Gainera edale soziala denak 4 puntutan irabazi du, (adikzio bat garatzeko aukera 72,1ak zuen 2012an, eta orain 76,6ak dauka). Ezezagunekin eduki ditzaketen borroak dira ondorio posibleetan kopuru handiengan azaltzen direnak, eta gizonezkoak joera gehiago daukate emakumezkoak baino.

15-34 urte bitartekoak tabernetan kontsumitzen dutela adierazi dute, kalean edateko ohiturak baheranzko sinergia harturik

Alkohola eta edari energetikoen nahasketarik erreparatzen badiogu, 15-34 urte bitartekoek egiten dituzten kontsumoak direla ikus dezakegu (5,7a 0,4arekin alderatuaz), eta gizonezkoak gehiago direla emakumezkoak baino.

## TABAKOA

Tabako kontsumoak 2008an hartutako beheranzko bideari jarraitzen dio, 1992a geroztik hartu diren kontsumo datu baxuenak izanik, erretzeari utzi diotenak eta sekula probatu ez dutenen datuak ahalbidetu dute joera hau (bi datu hauek izanik goranzko bidea hartu duten bakarrak). Tabakoa kontsumitzen hasten direnen gehiengoa 15 eta 16 urte bitartean hasten da (%36,6a), emakumezkoetan dauden kontsumoak handiagoak izanik, hastapena 16,9 urteetan finkatua dagoelarik.

Kontsumitzaileen %33,5ak 5 unitate erretzen ditu gehienez, eta sexuaren arabera kontsumitzen duten kopuruari erreparatzen badiogu, esan daiteke emakumezkoek egiten dituzten kontsumoak unitate kopuruan gutxiago direla gizonezkoak baino (kopuruari erreparatuz gero, hauek txikiago diren heinean emakumeen datuak handiagoak dira, baina 20 unitateei erreparatzen badiegu erretzaile gizonezkoa 7,8a da emakumezkoen 1,7a den bitartean).

Tabakoa kontsumitzeko modu ohikoena paketezko ereduan da (emakumeen artean ohikoagoa), ondoren biltzeko izanik (15-34 urte dituztenen artean ezagunagoa) eta "puro" moduan (gizonezkoen artean ohikoagoa) kontsumitutakoak jarraituaz. Uzteko interesa, emakumeen artean zabaldagoa da, utzi nahi ez dutenena bezala, osasun arazoak sortzen dituela izanik arrazoik zabalduea (emakumeen artean haurdunaldia ere izanik).

Zigarrilo elektronikak pixkanaka ere ari dira beraien espazioa hartzen eta iada %6ak egiten du kontsumo mota hau, zabalduen 15-34 urte bitartekoen artean izanda.

## KALAMUA

Kalamu kontsumoak 2012 geroztik goranzko bideari ekin dio, gizonezkoen artean kontsumo gehiago egonik emakumeena baino (%47,6a 30,6aren aldean), nahiz eta kontsumitzen hasteko adina berdina izan 18,6 urte. Kontsumo ohiturei erreparatzen badiegu, gehiengoak 1-11 aldiz urtean kontsumitzen du (populazioaren %4,2ak) %2,1ak aldiz astean 4-7 egunetan kontsumitzen dutelarik. Datu hauek bereziki aipagarriak dira 15-34 urte dituztenen artean, gizonezkoen kantitateen inguruko datuak handiagoak direlarik desberdintasun handiarekin.

Kalamua, lagun edo ezagun batek eskainita lortzen dutenak dira gehiengoak (populazioaren %6,8), saltzaile bati erosita lortzen dutenak jarraituta, aurreikusi daitekeen bezala

gizonezkoen datuak altuagoak dira emakumezkoenak baino, kontsumitzaile gehiago daudelako. Hala ere, emakumezkoen erreparatzen badiegu, eskuratzeko bide berdinak jarraitzen dituzte.

#### *LEGEZ KANPOKO BESTE DROGEN KONTSUMOAK*

Substantziarik kontsumituenak kokaina (%9) eta anfetaminak (%8,5) dira, adierazgarria izanik gizonezko eta emakumezkoen artean dauden kontsumo ezberdintasunak (bietan 8 puntu gutxiagok kontsumitzen dutelarik). 15-34 eta 35-74 urte bitarteko populazioak egiten dituzten kontsumo ezberdinei erreparatzen badiegu esan daiteke datu nahi antzekoak biltzen direla, speed eta kokaina izanik bi adin tartetan ezberdintasun handiena adierazi eta 15-34 gehiago kontsumitzen dutela adierazten dutenak.

#### *PSIKOFARMAKOAK*

Psikofarmakoei erreparatzen badiegu, bai lasaigarri eta baita antidepresiboak medikuaren errezetarekin kontsumitzen direla esan daiteke, kontsumoa emakumezkoen artean zabalduagoa izanik (bizitzan zehar kontsumitu duten emakumeak %32,3a dira eta gizonezkoak %19,6 lasaigarrien kasuan, eta %13,7a %5,7aren antidepresiboen kasuan). Kontsumitzen hasteko adina 40 urteren bueltan dago.

#### *JOKOA*

Substantziarik gabeko adikzioei erreparatzen badiegu, eta bereziki jokoari, loteria, kiniela, loteria primitiboa eta bono-lotoa dira ohikoenak, emakumezko eta gizonezkoen artean datu oso antzekoak lortuz. Sexuari erreparatuz ezberdintasun handienak kinielaz kanpo egiten diren kirol apustuek adierazten dituzte (%13,8a, %0,9aren aldean) gizonezkoena izanik kopuru handienak eta 15-34 urte artekoak gehiago izanik 34-74 urte bitartekoan baino. Gehiengo ausazko jokoetan edo apustuetan espezializatutako establezimenduetara joan ohi da, edo apustueterako terminalak erabili ditu tabernetan edo beste ostalaritza establezimendu batzuetan egin dute apustu. Beste bitarteko batzuk erabiltzen dituztenei erreparatuz gero, gailu pertsonal bidez sartu direlarik (mugikorra, ordenagailua...) apustuen web orrialdeetara.

Egindako apustuen gehiengoak ez dituzte 100€ak pasa, eta egun berean eginiko apustua 6-29€ bitartekoak izan dira. Sexuari erreparatuz gero, gizonezkoen artean gastu gehiago egiten dira tresna hauetan, joko adikzio batean erortzeko arrisku maila handiagoa dutelarik gizonezkoak emakumezkoak baino (bereziki joko aktiboan daudenak).

### *INTERNETEN ERABILERA*

Internet-a erabiltzen duten emakume eta gizonezkoen kopurua oso antzekoa dela ikus daiteke, baina egiten duten erabilera zertxobait ezberdina dela. Erabilera arriskuaren banaketari erreparatuz gero, arriskua egunetan zehar internet-a ezin erabili izanak sortzen dien ondorezarekin atzeman dute, egoera horren berri izan baino lehenago %9,2ak zehazki.

Interneten erabilera gorantz doala atzeman dezakegu azken urteetako datuei begiratuta, gutxiago baitira internet-a erabiltzen ez dutenak (%14,9a 2017an, 2012an %27,1a zirelarik).

### *ARRISKU PERTZEPZIOA*

Legez kanpoko sustantziek daukate gizartean arrisku pertzepzio handiena, oso larria dela %34,6ak baitio(kalamua bertan ez sartuaz, honek tabakoaren antzekoa baitu, tabakoa oso larria %22,3ak esaten du, kalamua %25,5ak esaten duen bitartean). Aldiz, arrisku pertzepzio baxuena alkoholak dauka %5,9ak esanik ez dela larria. Arrisku pertzepzio handiagoa daukate 35-74 urte bitartekoek 17-34 urte bitartekoek baino.

Hala ere adierazi behar da, substantzia guztiekiko arrisku pertzepzioak gora egin duela azken datuen arabera, legez kanpoko beste droga batzuetan izan ezik. Esan daiteke, gehien kontsumitzen diren sustantziek duten arriskuez kontzienteagoak garela.

Jokoari erreparatzen badiogu alderatzeko moduko oso datu gutxi ditugu, aurrenengo datuak orain 5 urtekoak baitira. Hala ere esan daiteke, arrisku pertzepzio honek ere goranzko bidea hartu duela.

Alkohol kontsumoak gorantz egin duenaren pertzepzioa dutela diote %48,7ak tabakoaren kontsumoak beherantz egin duela %50,6ak dioen bezalaxe, baita heroinaren kontsumoak ere beherantz egin duela ere, emakumezkoek aldaketa hauek gehiago pertzibituz.

Arriskutsuenak iruditzen zaizkigun kontsumoen zerrendari erreparatuz gero, egunean tabako pakete bat eta hilean behin heroina kontsumitzea dira egin daitezkeen ekintza arriskutsuenak. Haluzinogenoen hilean behineko kontsumoa eta egunero 5-6 kaña edateaz jarraituta.

Arrisku pertzepzio nahiko antzekoa dute 15-34 urte bitartekoak eta 35-74 urte bitartekoak, ezberdintasun handienak legalak diren sustantzien kontsumo baxuak markatuta (kasu hauetan 15-34 urte bitartekoak arrisku pertzepzio baxuagoa daukate beste adin tarteak baino).

Droga ilegalen eskuragarritasunak ere beherantz egin du, lortzeko errazena kalamua izanik (argi eta garbi %28,8ak dio lortzeko oso erraza dela, hurrengo datua kokainak adieraziaz %11,3an). Gainera inkestatuen herenak, substantzia ilegalekin arazoak dituzten pertsona bat baino gehiago ezagutzen ditu, alkoholarekin arazoak dituztenak ezagutzen dituztenen datu oso antzekoak izanik.

## 4.2. DATU KUALITATIBOAK

Behin datu kualitatiboaren laburpena egin eta kontsumoen inguruko datuak aurkeztu ondoren, (bai Deustoko Unibertsitateak egiten duen Drogak y Eskola IX, ESTUDESEko estatu mailako datuak eta Euskadi eta Drogak inkestari dagozkienak), Oñatiko herrian eginiko lanaren berri emango dugu.

Oñatiko errealitatera gerturatzeko asmoz, eragile ezberdinei eta populaziotik beraien partehartze eta eskuhartzearen arabera, galdetegiak, elkarrizketak eta eztabaida taldeak sortu ditugu bertan parte hartu dutenen iritziak eta pertzepzioak jaso ahal izateko.

Oñati eragile askoko herria izanik beharrezkoa iruditu zitzaigun honen inguruan esatekoa zuten guztiei galdetegia pasatzea, datu zehatzak jasotzeko asmoz, batez ere, prebentzio eta adikzio alorrean egiten dutenaren berri izateko instrumentu gisara aurkeztu genuelarik. Horrela bada, herriko Hezkuntza Zentroei, Ertzaintzari, Osasun zentroari, Gizarte Zerbitzuei, inkesta bat pasa zitzaien eta herritarrek bere kontsumoen inguruan eta honen inguruko iritziaren inguruan galdetegi bat erantzuteko aukera eman zitzaien herriko zenbait puntuetan.

### ➤ GALDEKETAK:

Galdeketen aurrean erantzuna txikia jaso genuen. 36 inkesta jaso genituen guztira, beraz ateratako datuak ez dira esanguratsuak ondorioak ateratzeko.

### ➤ ELKARRIZKETAK:

Bi elkarrizketa egin genituen. Bat gizarte zerbitzuekin eta beste bat ertzaintzari gaiarekin erlasionaturiko datuak lortzeko (isunak, esku hartzeak,...)

### ➤ TALDE EZTABAIDAK:

Eta azkenik talde eztabaida erabili dugu instrumentu garrantzitsuen bezala errealitatera gehiago gerturatzeko. Tresna oso interesgarri eta beharrezko gisara hartu dugu, eta modu ahal den eraginkorrean egiteko, bete beharreko baldintza batzuk finkatu genituen, ahal den eragile gehienara gerturatu eta denen ahotsa eta perspektiba jasotzeko.

Eztabaida taldeak horrela banatu ditugu, herriko HEZITZAILEAK, HEZKUNTZA taldea, GAZTEAK, ALOÑA MENDI kirol taldea, UDALEKO zinegotziak eta alkatesa, KOMUNITATEKO eragile desberdinak, KOMUNITATEArekin erlazioa duten eragileentalea,

|  |  |  |
|--|--|--|
| <p><b>HEZITZAILEAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Haur eta gazteri teknikaria</li> <li>- Familia hezitzaileak</li> <li>- Gaztelekuko hezitzaileak</li> <li>- Ludotekako hezitzaileak</li> <li>- Txipistineko hezitzaileak</li> </ul> | <p><b>HEZKUNTZA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikastetxe desberdinetako orientatzaile eta irakasleak</li> <li>- Ikastetxe desberdinetako gurasoak</li> </ul> | <p><b>GAZTEAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Txantxikuko DBHko 4.mailako ikasleak</li> </ul>   |
| <p><b>ALOÑA-MENDI TALDEA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Kirol desberdinetako hezitzaileak</li> </ul>   | <p><b>UDALA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Udaleko zinegotziak eta alkatesa</li> </ul>   | <p><b>KOMUNITATEKO ERAGILEAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Kirol teknikaria</li> <li>- ZEAREko langileak</li> <li>- Anbulategiko erizain eta medikua</li> </ul> |

Deialdiak egiterako orduan Gizarte Zerbitzuetakoekin koordinatuta, egutegi proposamen bat luzatu genuen bertan finkatuta saioak, batez ere ordutegi aldetik, batzuei goizez eta beste batzuei arratsaldez hobe etortzen zitzaielako, hau horrela talde bakoitzaren ezaugarri laboralak tarteko saioen egutegi bat finkatu genuen.

Esan beharra dago zailtasunak izan ditugula taldeak konbokatu eta aurrera eramateko, eta partehartzea zein saioetatik ateratako informazioa ere oso ezberdina izan da, eragile ezberdinek, informazio zein pertzepzio ezberdina dutela garbi antzeman dela. Gazteen taldean adibidez, pena izan da hain gutxi agertzea eta bakarrik ikastetxe batekoa, baina atera genuen informazioa baliagarria izanik, hori txertatuko dugu.

Hauek izan dira jarraitu ditugun irizpideak, galdera hauen erantzunak aurkitzen saiatu gara, eragileei galderak planteatu eta ondoren lasaitasunez beraien artean hitz egiteko. Hona hemen taldeka lortu ditugun erantzunak laburpen gisara.

- Kontsumoaren pertzepzioa
- Arazoaren pertzepzioa
- Legea betetzen denaren pertzepzioa
- Zer egin beharko genuke?
- Kolaboratzeko prest al zaudete?

Guk AGIPADeko teknikook ez dugu inondik inora parte hartu, gidatu besterik ez dugu egin, beraien arteko elkarrizketa indartuaz, isiltasuna nabari bada non gindoazen azaldu eta inertzia jarraitzeko bidea argitu. Aurkezpenarekin hasi gara, zein garen eta zer den egiten duguna, Oñatiko herrian dagoen errealitatearen berri izan nahi dugula, ondoren norbere iritzi eta pertzepzioa zein den azaltzeko aske direla garbi utziz, iritzi onik edota txarrik ez dagoela adieraziaz.

Datuak biltzeko egin ditugun galdetegi, elkarrizketa eta talde eztabaidetan ateratako ondorio nagusienak adieraziko ditugu jarraian.

## 5-ONDORIO NAGUSIAK

### ***Kontsumoaren pertzepzioa:***

- Talde guztietan ados zeuden alkohola, tabakoa eta marihuana direla substantziarik kontsumituenak, eta hauek batez ere jaiegunetan kontsumitzen direlarik.
- Beste drogak aipatzen zirenean, kokaina eta pilulak ziren gehienbat kontsumitzen direnak, eta hauek festa giroan bereziki kontsumitzen direnaren pertzepzioa.
- Tabakoa azken urtetan arriskutsuagoa delakoaren pertzepzioa dago. Gainera, tabakoa kalamua baina kaltegarria delaren pentsamendua dagoela diote.
- Kezka dago ere psikofarmakoen inguruko kontsumoen inguruan, bereziki emakumezkoen kontsumoetan altuagoak dira eta.
- Orokorrean, talde desberdinetan Oñatin diru "asko" maneiitzen denaren pertzepzioa dago, eta honek asko eragiten duela kontsumoetan (diru asko izatea arrisku faktore bat baita).
- 30-40 urte bitartean tabakoaren kontsumoa baxuagoa dela aipatu dute, baina gazteen artean joera hau aldatu dela eta berriz gorantz doala argudiatu dute.
- Kirola eta alkohola oso erlazionatuta daudela aipatu dute (dirua ateratzeko iturri handia baita bereziki oso arrakastatsua ez diren kirolekin), eta hau ez da eredugarria.

### ***Gazteak:***

- Alkohola da bereziki kontsumitzen duten substantzia: Asteburu eta jai egunetan finkatzen dira gehienbat kontsumoak, gainera Oñatin auzo asko daude eta bakoitzak bere jaiak ditu hauek gazteen artean onarpen handia izanik.
- Egungo gazteek graduazio altuko edariak edateko joera dutela ere argudiatu dute (vodka, ginebra...) arrisku handiagoa asumituz.
- Beste substantziak (ilegalak) uste dena baino gehiago kontsumitzen direla entzuten da, adin batetik aurrera.
- Neska eta mutilen arteko desberdintasunak ikusten, batzuk mutilak gehiago kontsumitzen dutela diote eta beste batzuk berdin.
- Botiltzarra egiteko ohitura handia ez dago Oñatin (MUko aterpean, San Martinen.. ) Pandemia ondoren jatsi egin da fenomeno, baina ohiturak mantendu dira). Festa eta udarara mugatzen da, bestela kontsumoak tabernetan egiten dira gehienbat.
- Gurasoak kontziente direla gazteen edota seme-alaben kontsumoaz aipatu zuten eta duen garrantzia kentzen zaiola.

- Tresna elektronikoen inguruan ikusten da hurrek geroz eta lehenago erabiltzen hasten direla, honek izan ditzaketen ondorioekin.
- Teknologia berriei lotuta, neskek sare sozialak gehiago erabiltzen dituzte eta mutilek bideo-jokuekin denbora gehiago egoten dira. Askotan mutil kuadrillak batera daude (fisikoki) eta mugikorrarekin elkarrekin jolasean dabilta.
- Gehienek mugikorra erabiltzean denboraren pertzepzioa galtzen dute (ez dakite zenbat denboraz ari diren erabili edo jolasten).
- Gazte lokalek asko egin dute behera, baina geratzen direnetan egiten diren kontsumoak kezka handia sortzen dute herri mailan.
- Babes faktore bat da kirola, baina igandeetan jai izatea eskatzen dute, parranda egin ahal izateko. Denboraldia amaitzerakoan kontsumoak gora egiten dutela ikusten da.

### **Helduak:**

- Helduen artean alkohola da ere gehienbat kontsumitzen den substantzia.
- Alkohola sozialki oso onartuta dago eta bere kontsumoa oso hedatuta dago; alkohola egunero edatea oso normalizatuta dago, eta askotan ez da hau arazo bezala ikusten. Askok kontsumitzaile dira eta ez dira kontziente daukaten arazoarekin.
- Askotan, umeak parkean jolasten daudela, gurasoak zerbezak edaten ari dira ondoan dagoen tabernak. Honek alkoholaren kontsumoan ondorioak dituela aipatu zuten (gurasoak eredu bezala).
- Kalamua da droga ilegalen artean kontsumituena. Kalamua kontsumitzen ikusten direnak ohiko kontsumitzaileak izaten dira, hau da, helduak eta erretzaileak direnak.
- Ordu batetik aurrera substantzia ilegalak kontsumituta ikusteko aukera asko igotzen da, baino kontsumoa ezkutuan egiten da.
- Teknologien erabileraren inguruan, asko erabiltzen denaren pertzeptzioa. Askotan kritika gazteei egiten zaie baina helduen artean erabilera desegokia ere ikusten da.
- Hurrek ez molestatzeko teknologia erabiltzeko joera daukate herriko gurasoek.
- Apustuak egiteko ohitura badago, baina gazte-helduen artean.
- Gazteei ez zaie erakusten edo transmititzen gauzak lortzeko esfortzua egin behar dela, kirola herrian oso presente eta baloratua dago, baina gazte askori beste ardurak batzuk kentzen zaizkie kirola edota beste konpromezu batzuk hartzen badituzte. Honek gazteen garapen pertsonalean ondorioak dituelarik.

**Edari energetikoak:**

- Edari energetikoak bakarrik jartzea erabaki dugu nahiko kezka zegoelako herri maian honen inguruan.
- Oso txikiak diren haurren artean ikusten diren kontsumoak dira. Erabat legalak dira baina ez egokiak haur edo nerabeentzat.
- Sortu ditzakeen ondorioak ikusi izan dira (takikardiak, arritmiak, urduritasuna, lo egiteko zailtasunak...)
- Bakarrik edateaz gain, alkoholarekin nahasten da eta honek arriskuak eta ondorioak handitu ditzake.
- Gurasoen artean, agian ezjakintasunagatik, ez da kezka handirik adierazten.

**Pintxo-potea:**

- Batxilerreko mailetan dago bertan parte hartzeko hastapena eta modu guztietako kontsumoak ikusten dira (legal eta ez legalak).
- Jendea elkartzeko eta kontsumitzeko momentu garrantzitsua bihurtu da pintxo potea.
- Talde desberdinetan pintxo-poteak min asko egin dezakeela aipatu da. Kontsumoak errazten dituelako alde batetik, eta txikienak ikusten dutena momentu horretan bestetik (ereduak izatea).

**Substantziarik gabeko adikzioak:**

- Hezitzaileek bereziki ardurua handia erakutsi dute gai honen inguruan. Haur asko 6 urtetik aurrera tableta bezalako tresnekin hasten dira. Gainera, etxetik emandako tresnak dira, eta ondoren mugikorrarekin jarraitzen dute, joera handia sortuz etxean geratzeko (erabilera etxera mugatzen baitute adin horretan), youtube, porno... kontsumoak izanik handienak.
- Atzerritarrei arrisku faktore bat gehitzen zaie, beraien jatorrizko herrialdekoekin harremana mantentzeko modu optimoena da, hau herriko koadriletan "sartzeko" dagoen arazoa ikusirik, bere sozializazioan eragin oso handia dauka.
- Egun koadrila ez izatea ez da arazoa, etxean aukera asko dituzte gustura egoteko eta hau COVIDaren agerpenarekin asko areagotu da.
- Pantailaren erabilerak agresibitatea eta deskantsu falta bezalako arazoak ekartzen dituela ikusi dute. Gainera, aurrez aurre sozializatzeko zailtasunak ekartzen ditu ere.
- Orokorrean, dituzten arriskuen kontzientzia ez daukagu (bideoak, argazkiak...).

**Legea:**

- Herri mailan permisibitate handia dagoela alkoholarekin agertu da talde desberdinetan.
- Legea, sustantzien kontsumoei lotuta, zenbait momentu-sustantziekin ez da betetzen eta ez da betearazten.
- Gaztetxoek errazago lortzen dute alkohola tabernetan, dendetan baino. Kontuan hartu behar da, tabernetan lan egiten dutenen adina oso baxua dela (batxilerreko ikasleak) hau arrazoi bat dela adierazten dute. Aldiz, jende ezaguna dendetan ikusteak ez erostera bultzatzen die (baina tabernetan ez da arazoa)
- Gazte batzuen artean, partiduak ikustera alkoholarekin gerturatzeko ohitura dagoela aipatu dute, eta honek arazo handiak sortzen dituela agertu da.
- Tabernetan erretzen da (tabakoa eta porroak), eta ez da ezer esaten. Normalean ordu batetik aurrera eta parranda momentuetan.
- Porroak kalean erretzen dira eta ez da ezer egiten (batez ere heldu erretzaileak izaten dira). Bere ustez ohituta gaude errealitate hau ikustera, bailara guztian berdina gertatzen da, eta normaltasuna ematen zaio.
- Marihuana landatu eta dirua egitea oso erraza delaren sentsazioa dago herrian.
- "Trapitxtoa" edo salerosketa non egiten den identifikatuta egon arren ez da ezer egiten.
- Oñatin gauetan udaltzainik ez egoteak zailtzen du kontrola.

**Prebentzio/lanketa arloa (zer egiten da):**

- Detekzio goiztiarren lanketa egite da esparru eta ekintza desberdinetan (guraso eskola, ikastetxeekin lanketa zuzena, herriko hezitzaileek egiten duten lanketarekin, gizarte zerbitzuak,...)
- Lanketan ikusten diren zailtasun handienak ez da lanketa bera egitea, baizik eta noa heldu pertsona zaurgarriengana, beraiek ez dutelako parte hartzen antolatzen diren ekintza desberdinetan.
- Hezitzaileekin San Juan de Diosetik etortzen den pertsona batekin lantzen dute adikzioen gaia, baita CSMko teknikoekin.
- Begiraleek denbora falta adierazten dute zuzenean gaia lantzeko, baina modu transbersal batean lantzen saiatzen dira, egunerokotasuneko egoeretan esku hartuz.
- Gazte-lekuan ere gaia lantzen dute, zeharka, ezer espezifikorik egin gabe.
- Ludotekan, ohitura osasungarrien aldeko aldarria egiten dute, hori oinarritzat hartuz landuaz. Teknologiarik gabeko espazio bat izatera iritsi nahi dute, atentzioa mantentzea asko kostatzen zaielako.
- Ai Laket! Elkartarekin lanketa bat egiten da festa inguruan.
- Anbulategitik tabakoaren lanketa egiten da, baina oso gutxi (helduekin zerbait gehiago gazteekin

baino)

- Herri kirolaria da Oñati eta hori kontsumoetan antzematen dela aipatu da talde desberdinetan. Kirola babes faktorea denez, kontsumoetan eragin dezake (murrizteko).

### ***Prebentzio/lanketa arloa, ZER EGIN DAITEKE?***

#### ***Jarraian, herri mailan prebentziorako proposatutako ekintza desberdinak zerrendatuko ditugu:***

- Prebentzio ekintzak gurasoekin gai desberdinak lantzeko (arauak, mugak, komunikazioa, kontsumoen ondorioak gazteengan, tresna elektronikoen erabilera, gurasoak eredu bezala,...).
- Nerabeekin aisialdi eremu desberdinak eta osasuntsuak sustatu (larunbatetan Gaztelekua gaueko 12ak arte irekita mantendu, ...).
- Nerabeei aukera eman bere aisialdia antolatzeko.
- Legea betearazteko neurriak jarri (eskaintzaren kontrola) dendetan, tabernetan,...
- Gazteekin kontsumoen inguruan hitz egin baina bere "esparruetan" (lokaletan, gaztelekuan,...)
- Eragile desberdinekin sentsibilizazioa landu (kirol hezitzaileak, aisialdiko hezitzaileak,...)
- Lan munduan sentsibilizazioa eta prebentzioa landu (lan orduetan ematen diren kontsumoak, eguerdikoak,...).
- Medikazioa hartzen dutenekin lanketa bat egin (adin gutxikoak edota helduekin).
- Substantziarik gabeko adikzioen inguruko formazio espezifikoa adin gutxikoekin eta bere gurasoekin. Sare sozialen inguruan ere bai.
- Joku eta apostuen inguruko sentsibilizazio eta formazioa. Honen inguruko legea betearaztea ere bai.
- Irakasleei formazioa eta errekurtsioak eskaini.
- Ikastetxeetan adin gutxikoei formazioa eskaini prebentzioa lantzeko. Lanketa sakonagoa egin eta ez modu puntual batean egiten den saio bat.
- Kerik gabeko guneak mantendu (tabakoa zein marihuana).
- Helduekin alkoholaren kontsumoaren inguruko debateak egiteko momentuak erraztu.
- Genero ikuspuntua modu transbertsalean ezarri.
- Profesional desberdinen arteko KOORDINAZIOA ezinbestekoa da. Hau errazteko momentu bat sortu beharko zen.
- Zaurgarriagoak diren familiekin lanketa bat egin eta eskaintza beraiei zuzendu.

## 6-PRINTZIPIO GIDARIAK

Plan honek Eusko Jaurlaritzaren **Adikzioen VII. Planaren** printzipioak jarraituko ditu:

### A. OSASUN PUBLIKOKO IKUSPEGIA POLITIKA GUZTIETAN.

Adikzioen planak kontuan hartzen ditu “kausen kausak” izenez ezagunak diren osasunaren determinatzaile sozialak.

Horregatik, osasunarekin erlazionatutako jarreretan jardutea planteatzen da, ez soilik arreta indibidualako neurrietan oinarrituta, baita inguru osasungarriak sortzera eta arlo sozial, ekonomiko eta politikoko faktore estrukturalagoetan eragitera bideratutako jarduketetan oinarrituta ere.

### B. ADIKZIOEN IKUSPEGI INTEGRALA.

Adikzioak diziplina anitzeko ikuspegi integralarekin landu behar dira. Helburua, babes faktoreak indartzea eta arrisku faktoreak murriztea da, adikzio arazoak dituzten pertsonen eman beharreko laguntza bermatuz, eta horren eragina jasaten duten pertsonen inklusio normalizatua erraztuz beraien komunitatearen ingurunean.

Pertsonen bere portaeretan kontrol handiagoa izateko gaitzera bideratutako ekintzak proposatzen dira, inguru osasungarriak sortuta, kontsumoa murrizteko gaitasunak eskuratuta eta arrisku-faktoreak murriztuta.

Aurrekoaosatuz, adikzio alorreko jarduketa estrategiek eskaintza murrizteko eta kontrolatzeko eta eskaria murrizteko ekintzak sartu behar ditugu. Honez gain, adikzio arazoak dituzten pertsonen osasun arreta, eta arreta soziosanitarioa bermatu behar da. Agente publiko eta pribatu guztien parte hartze koordinatua, eta kudeaketa eraginkor behar da horretarako.

### C. SUBSTANTZIEK ERAGINDAKO ADIKZIOAK, JOKABIDEKOAK ETA ARAZO BERRIAK.

Alde batetik adikziorako gaitasuna duten substantziak aurreikusten dira, baina behin eta berriro edo gehiegi eginez gero arazo larriak eta adikziorako gaitasuna duten substantziek eragiten dituzten antzeko adikzio patroiak sortzeko gaitasuna duten beste jokabide batzuetan ere jartzen dute arreta.

D. HIRU MAILAKO ESKU-HARTZEA: PERTSONA, GIZARTE ETA KOMUNITATE INGURUNEA, ETA TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA ETA POLITIKOA

Esku-hartze ereduak pertsona jartzen du erdian, erdu biopsikosozailean oinarrituz, izan ere, adikziozko jokabidea hiru alorretako faktoreek erregulatzen baitute.

Komunitate inguruneari dagokionez, pertsonengandik gertuen dauden inguruneek bultzatzeko duten balioa azpimarratzen da, horien guztien inplikazioa eta partaidetza bilatuz. Hemen tokiko erakundeak funtsezkoak dira.

Amaitzeko, garrantzitsua da testuinguru sozioekonomikoa eta politikoa kontuan hartzea, horrek eragina baitu eta desberdintasun sozioekonomikoak sor baititzake. Desberdintasun horiek funtsezkoak dira substantzien kontsumoan eta jokaera ez osasungarriak hartzerako orduan.

E. UNIBERTSALTASUNA, ELKARTASUNA ETA EKITATEA. UNIBERTSALISMO PROPORZIONALA

Unibertsaltasun printzipioak, osasunaren prebentzio eta sustapen, babes eta laguntza baliabideetara sarbide unibertsala du berarekin.

Plana unibertsaltasun proportzional kontzeptuan inspiratzen da. Kontzeptu horrek, adikzioen alorreko jarduketek unibertsalak izan behar dutela dio, baina beharrekin proportzionalak izango diren eskalarekin eta intentsitatearekin.

Ekitate printzipioaren barruan, genero ikuspegiak garrantzi azpimarragarria hartzen du. Mendekotasunen arloko jarduketei ekiteko, sexua eta generoa hartu behar dira kontuan, hau da, emakumeen eta gizonen baldintzak, egoerak eta beharrak.

F. IRAUNKORTASUNA.

Horretarako, beharrezkoa da eraginkortasunaren alde lan egitea, beste eragile eta ekimen batzuekin era koordinatuan eta sarean lan eginez, jarduketan ebaluaziorako eta kontrolerako esfortzua eginez, esperientziatik ikasi eta etorkizunean hobera egiteko aukera ematen duelarik.

## 7-ESKU HARTZEKO ARDATZ POSIBLEAK.

### 1. ARDATZA – PREBENTZIOA ETA OSASUNAREN SUSTAPENA.

- Osasunaren sustapena bultzatu eta bizitzeko ingurune, jarrera eta estilo osasungarriak bultzatu
- Babeserako faktoreak indartu, adikzioen eragina eta prebalentzia murriztu eta horien aurrekari diren arrisku faktoreak eta jokabideak gutxitu

### 2. ARDATZA- ESKAINTZA MURRIZTEA

- Adikzioak sor ditzaketen substantzia eta jardueretarako sarbidea mugatzea
- Kontsumoarekiko tolerantzia soziala murriztea eta indarrean dagoen araudia era efikazean betetzea

### 3. ARDATZA- OSASUN LAGUNTZA ETA LAGUNTZA SOZIOSANITARIOA ETA GIZARTERATZEA

- Adikzioetatik eta arazoak sortzen dituzten jokabide eta kontsumoetatik sortutako arriskuak eta kalteak murriztea bilatzen du
- Osasun eta zerbitzu sarearen bitartez, eta adikzioen fenomenoak eragiten dituen laguntza beharrei erantzun jarraitua, koordinatua eta eraginkorra ematea.

### 4. ARDATZA- EZAGUTZAREN ETA EBALUAZIOAREN KUDEAKETAK

- Adikzioen eta horien zergatien eta ondorioen alorreko ikerketan, hedapenean eta ezagutzan aurrera egitea bilatzen du, eta baita alor horretan planteatzen diren programen eta ekimenen ebaluazioan ere

## 8-HELBURU OROKORRAK

1. Oñatiko herritarrak adikzioei lotutako arazoaren inguruan sentsibilizatu eta formatu, hauekiko jarrera aldatzeko eta arrisku faktoreei modu eraginkorren aurre egiteko babes faktoreak indartuz.

Herritarrak adikzioaren inguruan sentsibilizatzeko, nahaste hauen izaera intrintsekoa ezagutu eta honekiko balore sistema finkatzea suposatzen du. Jakin badakigu komunitatearen Ordezkaritza Sozialak eremu honetako edozein esku-hartze baldintza dezakeela. Hori dela eta, aldaketa bat sortuko dugu, fenomenoaren bilakaeran norbanakoak, taldeak eta gizarteak duen erantzukizunari buruz kontzientziazio progresiboa lortzeko.

2. Udalerriko biztanle talde zaurgarrietan prebentziozko esku-hartzearen intentsitatea indartzea.

Adikzioen aurrean zaurgarritasun berezia duten biztanleria talde espezifikoekin esku- hartu behar dugu, eta esku-hartze selektiboa indartu behar dugu, adikzioen mundura sarbide arazotsua izateko arriskua murrizteko.

Esku-hartze mota honek ez du adikzioak zuzenean ekiditea helburu, baizik eta adikzioen ondorio negatiboenetatik babesteko aukera ematen duten arrisku-faktore espezifikoetan lan egingo du, nahiz eta adikzioa hasita egon edota honen ondorio negatiboak izan.

3. Prebentziozko esku-hartzea hobekuntza bultzatzea, Oñatiko udalerriko komunitatearen inplikazioa erraztuz.

Helburu honek prebentzio lanaren prozesuetan zentratzea ahalbidetuko digu, planaren garapenean zehar komenigarriak diren hobekuntzak sustatuko ditugu.

4. Plan hau indarrean dagoen bitartean aurrera eramaten diren prebentzio programetan, etenqabe aldatzen ari den fenomeno baten etenqabeko berrikuntza eta egokitzapena sustatu.

Prebentzio programak exekutatu eta diseinatzerako orduan, ezagutza zientifikoa lehen mailako tresna bezala indartuko da, eta aldi berean, gure jarduerak lan egiten ari garen komunitatearen erritmo eta errealitatera egokituko ditugu.

## 1. LERRO ESTRATEGIKOA.

- Adikzioaren prebentziorako jarrera proaktiboak sortzeko herritarrak sentsibilizatzea.
- Eskola eremuan hezkuntza prozesua indartzea, honela egingo dugularik lan: “Osasunerako hezkuntza- Adikzioen Prebentzioa”.
- Eragile desberdinen koordinazioa erraztea.
- Prebentzio familiarra garatu, udalerriko familiei prebentzio tresnak emanaz.
- Prebentzio esku-hartzeak, adikzio nahasteak garatzeko ahultasun gehien duten biztanleria taldeen behar eta ezaugarrietara egokitzea, batez ere adingabeak eta gazteak.
- Drogadependentzia eta beste adikzio nahasteen prebentzio espezifikoak garatzeko interbentzio indibiduala eta familiarra.
- Adikzioen laguntza-sarerako sarbidea erraztea.
- Gehien kontsumitzen eta gizartean onarpen maila handiena duten substantziak normalizatuz ez hartzeko sentsibilizatzea.

### *Helburu espezifikoak*

- a. Gizarte-bitartekariak adikzioen prebentzioan formatzea.
- b. Gizarte-ekimenez sentsibilizaziotarako kanpaina bultzatzea.
- c. Oñatiko herritarrek adikzioen inguruan duten informazio eskariari erantzuna eman.
- d. Adin txikikoen alkohol kontsumoaren inguruan sentsibilizatzeko kanpaina egin.
- e. Bigarren Hezkuntzan Prebentzio programak finkatzea.
- f. Lehen Hezkuntzako zentroetan Osasun Hezkuntzako programak ezartzea.
- g. Gazteekin eremu desberdinetan prebentzio ekintzak sustatu.
- h. Familientzako Guraso Trebetasunen arloko prestakuntza taldeak garatu, bai 6tik 12 urte arteko seme-alabak dituztenentzat, bai 12tik 16 urte artekoak dituztenentzat.
- i. Oñatiko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan zaurgarriak diren biztanleei egokitutako prebentzio tailerrak garatzea.
- j. Oñatiko zerbitzu desberdinen erabiltzaile diren gazteentzako prebentzio ekimen desberdinak bultzatzea.
- k. Kale Heziketa programan parte hartzen duten gazteekin egiteko prebentzio ekintzak bultzatzea.
- l. Medikamentu psikotropikoen gehiegizko kontsumoen inguruko sentsibilizazio lanketa bat egitea.

- m. Prebentzio ekintzak gazteengana hurbiltzea.
- n. Prebentzio ekintzak lan mundura zabaltzea.
- o. Nerabeekin aisialdia eskaintza desberdinak sustatzea.

## 2. LERRO ESTRATEGIKOA.

- Substantzia legalen inguruko salmentarekin erlazionatutako kontrola erraztea.
- Substantzia legalen kontsumoaren inguruko kontrola erraztea.
- Substantzia batzuen publizitate-sustapenaren inguruko lanketa bat egin.
- Legez kanpoko drogen salmenta eta presentzia murriztea.
- Jokoaren eskaintza adin gutxikoei murriztea

### *Helburu espezifikoak*

- a. Adikzioei buruzko arautegian eskaintzaren eta kontsumoaren murrizketarekin erlazionatuta dauden esku-hartzeak indartzea.
- b. Eskaintza murriztu eta kontrolatzeko programak garatzea (ostalaritza edo bestelako gune, ekitaldi edota salmenta puntuetara zuzenduta).
- c. Tabakoa, zigarro elektronikoa eta alkoholaren arloan ikuskatze-zigortze protokoloa lantzea.
- d. Zehapenen aurreko neurri alternatiboak indartzea.
- e. Legez kanpoko drogen salmenten inguruko esku-hartzeak indartzea.

## 3. LERRO ESTRATEGIKOA.

- Osasun eta gizarteratze sarbidea eskaintzea adikzioak dituzten edo izan ditzaketen pertsonen beharretan zentratuta.
- Koordinazio sanitarioa indartzea.

### *Helburu espezifikoak*

- A. Hautemate goiztiar sistema indartzea.
- B. Talde espezifikoei eta zaugarriak direnei eskaini beharreko arretan hobetzeko alderdiak identifikatzea (patologia duala, emakumeen egoera, adin gutxikoak, 65 urtetik gorakoenak,...)
- C. Osasuneko eta gizarte sektoreen arteko koordinazioa aztertzea eta hobetzea.

#### 4. LERRO ESTRATEGIKOA.

- Ikerketa.
- IKTen erabilera.
- Berrikuntza.
- Generoa.

##### *Helburu espezifikoak*

- A. Kontutan hartuta adikzioen gaia faktore anitzekoa eta denboran zehar aldakorra dela, gaian eguneratua egon eta gertakariei aurre hartzen jakitea, prebentziorako estrategiak garatu ahal izateko.
- B. Adikzioei aurre egiteko erabakigarriak diren arlo batzuk sakonki aztertu eta gutxienez ikertzeko ekintza bat garatzea.
- C. Ekintza desberdinak garatzerako orduan IKTak erabili ahal izatea.
- D. Bost urte hauetan, gutxienez, prebentzio berritzaileko estrategia bat sartzea, batez ere generoari eta mendekotasunei lehentasuna emanez

## **9-EKINTZEN LEHENTASUNA.**

Oñatiko errealitatea gertutik ezagutzeko alderdi kuantitatibo eta kualitatiboei erreparatu diegu eta honetarako Oñatiko eragile ezberdinekin biltzeko aukera izan genuen. Datu asko eta herriko argazki erreal bat egiteko ahalmena izan dugu beraiei esker eta behin dena idatzita utzi ondoren, lortutako emaitzak aurkezteko aukera aprobetxatu nahi izan dugu beraien iritzia beste behin jaso ahal izateko. Gainera parte hartzaileei eskatu genien 3 ekintza aukeratzea lehentasun mailaren arabera. Jarraian ekintza desberdinak eta hauen lehentasuna aurkezten dugu.

- 1 • Adikzioen fenomenoari erantzun bateratua emateko beharren inguruan Oñatiko herritarrak informatzeko eta sentsibilizatzeko kanpaina egin, arazoaren errealitatearen inguruko kontzientzia hartzeko.
- 2 • Eskola-programak diagnostikoan ikusitako beharretara egokitzea eta irakasleei prestakuntza, materialak eta tailerrak ematea, epe ertain eta luzera ikasgeletan prebentziozko lana finkatzeko, substantziarik gabeko mendekotasunak, edari energetikoak, genero-ikuspegia, heziketa emozionala eta abar sartuz.
- 3 • Gazteei aisialdi mota desberdinak eskaini, aisialdi "osasuntsua" sustatzeko eta bere partaidetza ahalik eta gehien sustatuz.
- 4 • Adingutxikoei begira, droga legalen salmentaren inguruan lanketa bat egin eskaintza murrizteko estrategia bezala. Bai dendariekin, bai tabernariekin, bai egun puntualetan alkohola saltzen dutenekin (txosnak,...).
- 5 • Familientzako osasuna sustatzeko eta adikzioei aurre egiteko ekimenak sortu (kontsumo eredu erreferentzialen inguruko kontzientzia landu, adinaren arabera formazio taldeak sortu,...)
- 6 • Osasunerako hezkuntza eta adikzioen prebentzioa koordinatzeko erakunde/eragile arteko MAHAI KOMUNITARIO/PREBENTZIO MAHAIA sortu
- 7 • Herriko gazte lokaletan adikzioei aurre egiteko edota arriskuak murrizteko programa bat garatu.
- 8 • Hezkuntza zentroetan arrisku eta zaurgarritasun bereziko adingabeak goiz detektatzeko esku-hartzeak indartu.
- 9 • Gaztelekuan, kale heziketako programan, edota familia esku hartze programan parte hartzen duten haur, nerabe eta gazteekin adikzioei aurre egiteko gaitasuna sustatzeko programak garatu beraiekin eta profesionalekin.
- 10 • Familia zaurgarriekin adikzioei aurre egiteko gaitasuna sustatzeko programa garatu.
- 11 • Herritarrei adikzioen eta mendekotasunak tratatzeko baliabideen berri ematea.
- 12 • Jaien eta bestelako aisialdi egunen testuinguruan arriskuak murrizteko ekintzak mantendu (testing-a,...)
- 13 • Droga ilegalen kontsumoak leku publikoetan eta bere salmentaren inguruko esku hartzeak egin arriskuaren pertzeptzioa igotzeko alde batetik eta eskaintzaren murrizketa lortzeko bestetik.
- 14 • Prebentzio ekintzak lan mundura eraman
- 15 • Planaren urteroko ebaluazioaren planifikazioa eta gauzatzea.
- 16 • Medikamentu psicotropikoen inguruan lanketa bat egin, genero ikuspegia kontutan izanda.

Kontutan izan behar dugu plana 5 urteei begira sortzen den dokumentua dela, horregatik nahiz eta lan ildoak, helburuak eta planteatzen diren ekintzak orokorrak denbora tarte hori kontutan duten, lana hobeto zehazteko eta momentu bakoitzari hobeto egokitzeko, kronograma eta ekintza zehatzak urtero planteatuko dira. Horrela ere urtean egindako ekintzen balorazioa kontutan izango da jarraipena emateko edota aldaketak planteatzeko

ARDATZA

## • 1. ARDATZA – PREBENTZIOA ETA OSASUNAREN SUSTAPENA

LERRO ESTRATEGIKOAK

- Adikzioaren prebentziorako jarrera proaktiboak sortzeko herritarrak sentsibilizatzea.
- Eskola eremuan hezkuntza prozesua indartzea, honela egingo dugularik lan: "Osasunerako hezkuntza- Adikzioen Prebentzioa".
- Eragile desberdinen koordinazioa erraztea.
- Prebentzio familiarra garatu, udalerriko familiei prebentzio tresnak emanaz.
- Prebentzio esku-hartzeak, adikzio nahasteak garatzeko ahultasun gehien duten biztanleria taldeen behar eta ezaugarrietara egokitzea, batez ere adingabeak eta gazteak.
- Drogadependentzia eta beste adikzio nahasteen prebentzio espezifikoak garatzeko interbentzio indibiduala eta familiarra.
- Adikzioen laguntza-sarerako sarbidea erraztea.
- Gehien kontsumitzen eta gizartean onarpen maila handiena duten substantziak normaltzat ez hartzeko sentsibilizatzea.


HELBURU ESPEZIFIKOAK


- Gizarte-bitartekariak adikzioen prebentzian formatzea.
- Gizarte-ekimenetik sentsibilizaziotarako kanpaina bultzatzea.
- Oñatiko herritarrek adikzioen inguruan duten informazio eskariari erantzuna eman.
- Adin txikiko alkohol kontsumoaren inguruan sentsibilizatzeko kanpaina egin.
- Bigarren Hezkuntzan Prebentzio programak finkatzea.
- Lehen Hezkuntzako zentroetan Osasun Hezkuntzako programak ezartzea.
- Gazteekin eremu desberdinetan prebentzio ekintzak sustatu.
- Familientzako Guraso Trebetasunen arloko prestakuntza taldeak garatu, bai 6tik 12 urte arteko seme-alabak dituztenentzat, bai 12tik 16 urte artekoak dituztenentzat.
- Oñatiko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan zaurgarriak diren biztanleei egokitutako prebentzio tailerrak garatzea.
- Oñatiko zerbitzu desberdinen erabiltzaile diren gazteentzako prebentzio ekimen desberdinak bultzatzea.
- Kale Heziketa programan parte hartzen duten gazteekin egiteko prebentzio ekintzak bultzatzea.
- Medikamentu psicotropikoen gehiegizko kontsumoen inguruko sentsibilizazio lanketa bat egitea.
- Prebentzio ekintzak gazteengana hurbiltzea.
- Nerabeekin aisialdia eskaintza desberdinak sustatzea

EKINTZAK

- Adikzioen fenomenoari erantzun bateratua emateko beharrezko inguruan Oñatiko herritarrak informatzeko eta sentsibilizatzeko kanpaina egin, arazoaren errealitatearen inguruko kontzientzia hartzeko.
- Eskola-programak diagnostikoan ikusitako beharretara egokitzea eta irakasleei prestakuntza, materialak eta tailerrak ematea, epe ertain eta luzera ikasgeletan prebentziozko lana finkatzeko, substantziarik gabeko mendekotasunak, edari energetikoak, genero- ikuspegia, heziketa emozionala eta abar sartuz.
- Gazteei aisialdi mota desberdinak eskaini, aisialdi "osasuntsua" sustatzeko eta bere partaidetza ahalik eta gehien sustatuz.
- Familientzako osasuna sustatzeko eta adikzioei aurre egiteko ekimenak sortu (kontsumo eredu erreferentzialen inguruko kontzientzia landu, adinaren arabera formazio taldeak sortu,...)
- Herriko gazte lokaletan adikzioei aurre egiteko edota arriskuak murrizteko programa bat garatu.
  - Gaztelekuan, kale heziketako programan, edota familia esku hartze programan parte hartzen duten haur, nerabe eta gazteekin adikzioei aurre egiteko gaitasuna sustatzeko programak garatu beraiekin eta profesionalekin.
  - Jaien eta bestelako aisialdi egunen testuinguruan arriskuak murrizteko ekintzak mantendu (testing-a,...)
  - Medikamentu psicotropikoen inguruan lanketa bat egin, genero ikuspegia kontutan izanda.







## 10- EBALUAZIOA.

Guk proposatzen dugun ebaluazio sistemak ez da soilik prozesuaren eta emaitzen ebaluazioan zentratzen, baizik eta gure jardunaldietan parte hartu duten pertsonak barne hartu nahi ditu, bai erabiltzaile zuzenak baita komunitatekoak ere.

Esku-hartze eraginkorra lortuko dugu, biztanleriak egoki iruditzen zaizkion baliabideak eta jarduerak jasotzen dituenean, eta, horretarako, haien gaineko balorazioa egin ahal izatea bermatu behar dugu.

Ebaluazio ikuspegi honek plangintza-tresna indartsua edukitzea ahalbideratuko digu, zeinak proposatutako helburuak betetzeari, gauzatzeari eta honen eraginari buruzko informazioa emango digun. Hori dela eta, zuzenketak eta aldaketak egiteko baliagarria izango zaigu, lortutako emaitzen araberako aldaketak gauzatu ahalko ditugularik, beti ere adikzioen fenomenoaren beharaldakorrak kontutan hartuta.

Ebaluazio proposamenak honako alderdi hauek izango ditu ardatz:

- Urteroko ebaluazio plana garatzea, ildo estrategiko bakoitzaren helburuak, jarduketak, hobekuntza arloak eta xedeak betetzen ari diren aztertzeke.
- Erabiltzaileen asebetetze maila eta esku-hartzeei buruz herritarrek duten pertzepzioari buruzko informazioa biltzeko sistema periodikoa ezartzea, planaren garapenean erabiltzaileen iritzia integratzen joateko.
- Azken ebaluazioa. Azken balantzea egiteaz gain, hurrengo planerako ekintzak planifikatzeko balio duen dokumentua sortuko balioko duelarik.

## **11- EKINTZEN KRONOGRAMA.**

Aurreko ataleko ekintzak oinarri hartuz, eta hauek duten lehentasun maila kontutan hartuz, jarraian atxikitua jarri dugu ekintzen gutxi gora beherako kronologia bat. Egungo egoera kontutan hartuz, zaila da momentu honetan ekintza guztiak 5 urteei begira aurrez tenporalizatzea. Honez gain, lehen esan dugun bezala, lehen urteko ekintzak eta hauen kronograma atxikituko da. Urtero antolatuko dira ekintzak egokituz bai Oñatiko egoerara eta errealitatera, bai baita ere egindako ekintzen baloraziora.

| ILDO ESTRATEGIKOAK. EKINTZAK 2023. urtea   | 11-EKINTZEN KRONOGRAMA |    |     |    |   |    |     |      |    |   |    |     |
|--|------------------------|----|-----|----|---|----|-----|------|----|---|----|-----|
|  | I                      | II | III | IV | V | VI | VII | VIII | IX | X | XI | XII |
| 1. Eskola-programak diagnostikoan ikusitako beharretara egokitzea eta irakasleei prestakuntza, materialak eta tailerrak ematea, epe ertain eta luzera ikasgeletan prebentziozko lana finkatzeko, substantziarik gabeko mendekotasunak, edari energetikoak, genero- ikuspegia, heziketa emozionala eta abar sartuz. |                        |    |     |    |   |    |     |      |    |   |    |     |
| 2. Adingutxikoei begira, droga legalen salmentaren inguruan lanketa bat egin eskaintza murrizteko estrategia bezala. Bai dendariekin, bai tabernariekin, bai egun puntualetan alkohola saltzen dutenekin (txosnak,...).  |                        |    |     |    |   |    |     |      |    |   |    |     |
| 3. Osasunerako hezkuntza eta adikzioen prebentzioa koordinatzeko erakunde/eragile arteko harremana sustatu eta MAHAI KOMUNITARIO/PREBENTZIO MAHAIA sortu. POZ zerbitzuaren estruktura erabili.   |                        |    |     |    |   |    |     |      |    |   |    |     |
| 4. Herri mailan arrisku eta zaugarritasun bereziko adingabeak goiz detektatzeko esku-hartzeak indartu (hezkuntza zentroetan, interbentzio familiarraren programaren bidez, Gaztelekuko hezitzaile-integratzaileen bidez,...)   |                        |    |     |    |   |    |     |      |    |   |    |     |
| 5. Familia zaugarriekin adikzioei aurre egiteko gaitasuna sustatzeko programa garatu interbentzio familiarraren programaren bidez .  |                        |    |     |    |   |    |     |      |    |   |    |     |
| 6. Herritarrei adikzioen eta mendekotasunak tratatzeko baliabideen berri ematea  |                        |    |     |    |   |    |     |      |    |   |    |     |
| 7. Jaien eta bestelako aisialdi egunen testuinguruan arriskuak murrizteko ekintzak mantendu (testing-a,...).   |                        |    |     |    |   |    |     |      |    |   |    |     |
| 8. Ke gabeko guneak programa martxan jarri   |                        |    |     |    |   |    |     |      |    |   |    |     |
| 9. Adikzio arazoak dituzten pertsona zaugarriekin eta bazterkeria arriskuan daudenekin Gizarte zerbitzuetako errekurtsioak martxan jarri bakarkako inklusio planak eginez eta behar dituen udal errekurtsioak martxan jarri ( Gizarte langilea, bazterkeria arriskuko etxebizitza, dirulaguntzak, hezitzailea)     |                        |    |     |    |   |    |     |      |    |   |    |     |
| 10. Planaren urteroko ebaluazioa eta planifikazioa hurrengorako.   |                        |    |     |    |   |    |     |      |    |   |    |     |

## \*GEHIGARRIA. *Legedia*

### ❖ ARAUTEGI ESPARRUA.

#### EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA:

#### **8/1997 LEGEA, ekainaren 26koa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarena**

##### 2. ATALA. Osasunaren instituzio-eremua.

1.– *Euskal aginte publiko guztien lehentasuneko zeregina da, izan, jarduera sozio-ekonomikoko sektore bakoitzean osasuna sustatzea eta indartzea, bizitza-ohitura osasungarriari adare emateko, arrisku-faktoreak kentzeko, ondorio negatiboen intzidentzia ezabatzeko eta bere izaeragatik dagokion leku nagusiaren gainean sentsibilizatu eta kontzientziatzeko.*

2.– *Eusko Jaurlaritzaren zeregina da Euskadin osasunaren instituzio-eremu hori jagotea, bai gomendioak bideratuz edo egokituz jotzen dituen neurriak hartuz, sektore-politika guztietan kontuan har daitezela zaintzeko, eta bai ekintza sanitario hutsen osagarri diren diziplina anitzeko ekintza positiboan diseinua emanez, biztanleriaren osasun-mailan etengabeko hobekuntza lortzeko.*

3.– *Gizarte-zerbitzuetan eskumena duten administrazio publikoekin lankidetzan aritzeko beharrezko bideak ezarriko dira, gaixotasunen edo osasun-galeren prozesuetan biltzen diren arazoak edo gizarte-egoerak etenik gabe atenditzen direla garantizatzeko.*

##### 13. ATALA. Euskadiko Osasun Plana.

1.– *Euskadiko Osasun Plana sistema planifikatzeko eta programatzeko lanabes nagusia da; izan ere, plan horren bidez politika sanitarioko osasunari buruzko oinarrizko helburuak ezarriko dira, eta, era berean, haren bidez zehaztuko dira plana indarrean dagoen bitartean egongo diren baliabideekin atenditu beharreko lehentasunak.*

2.– *Eusko Jaurlaritzari dagokio hura onartzea, sanitateko organo arduradun nagusiaren proposamenaz, eta Legebiltzarrean aurkeztu beharko da Araudia jarraituz komunikazio gisa tramitatzeko. Batez ere, ondoko zehaztapenak bilduko ditu:*

a) Biztanleriaren osasunaren mailak eta beharrianak eta zerbitzu sanitarioetara heltzeko baldintzak ebaluatzea.

b) Patologiei, osasun-arriskuei eta atenditzeko lehenetsua ematen zaien gizarte-taldeei buruzko politika sanitarioko lehenetsunak, baita lehenetsunez garatu beharreko modalitate asistentzialei eta zerbitzuen tipologiari buruzkoak ere.

c) Sistemaren prestazio sanitarioen karterari buruzko eta osasun plana garatzeko beharrezkoak diren finantzazko, gizazko eta gauzazko baliabideei buruzko norabideak eta irizpide estrategikoak.

d) Sistemaren osasun, gestioko eta kalitateko helburuen ebaluazio-adierazleak.

3.– Osasun alorrean eskumena duen sailari dagokio urtero-urtero prestatu eta Legebiltzarrari bidaltzea txosten bat Euskadiko Osasun Planaren helburu eta xedapenen neurketarekin.

## **10/2015 LEGEA, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jarduerena.**

19. ARTIKULUA. Adingabeak babestea.

1.– Haurrak eta nerabeak babesteko, artikulua honetan aurreikusitako mugak ezartzen dira adingabeak jendaurreko ikuskizunetan, jolas-jardueretan eta establezimendu publikoetan sartzeko eta haietan egoteko.

2.– Adingabeak ezin izango dira establezimenduetan sartu edo egon, baldin eta adingabeentzat desegokitzat jotako jarduerarik edo erakusketarik egiten bada establezimenduetan, edo adingabeentzat material edo informazio desegokia zabaltzen bada edozein bitartekoz. Bereziki debekatuta dago:

a) Hemezortzi urtetik beherakoak sartzea edo egotea lege honetako katalogoan azaltzen diren erakusketa areto berezietan, baldin eta proiektzioak, erakusketak edo zuzeneko emanaldiak pornografikoak badira, muturreko biolentzia erakusten badute edo, edukiari erreparatuta, adin nagusikoentzat badira.

b) Adingabeak joko-establezimenduetan eta -lokaletan sartzeara eta egotea; betiere, berariazko araudiaren arabera.

c) Adingabeak dantzalekuetan, dantza-aretoetan eta diskoteketan sartzeara eta egotea, kalterik eragin gabe adingabeentzako saioak egiteko baimena duten dantza-areto edo diskotekei buruz edota gazte-aretoei buruz xedatutakoari.

d) Hamasei urtetik beherakoak taberna berezietan, pub eta disko-tabernetan sartzeara eta egotea, salbu adin nagusikoekin daudenean, alkoholik kontsumitu barik eta 22:00ak arte.

3.– Antolatzaileek adinaren arabera sailkatu eta mailakatu beharko dute sartzeara, erregelamenduz ezartzen den moduan, baldin eta antolatzen dituzten jendaurreko ikuskizunak edo jolas jarduerak arriskutsuak izan badaitezke adingabeen nortasuna garatzeko edo haiek prestatzeko. Sailkapen hori, berriz, ondo ikusteko moduan azaldu beharko da kanpoko karteletan, publizitatean eta sarreretan.

4.– Establezimendu eta instalazioek bezeroei Interneteko sarbidea eskainiz gero, edukiak murriztu, eta kautelak ezarri beharko dituzte adingabeak sartu ez daitezen nortasunaren garapenean eta prestakuntzan 9 kalte egin diezaiekeen informazioan. Edonola ere, debekatuta dago adingabeak ziberkafetegietan sartzeara, baldin eta Interneteko informatika-sareetako konexioek ez badiote erabiltzaileen adinari inolako mugarik jartzen.

5.– Dantza-areto edo diskotekek adingabeentzako saioak prestatu ditzakete, zeinetan onartuko baita hamalau eta hamazortzi urte bitarteko gazteak sartzeara eta bertan egotea. Horretarako, gutxienez, baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Adingabeentzako saioei buruz establezimendu horiek egiten duten publizitateak ez du adingabeentzako erreferentzia edo mezu desegokirik eduki edo aipatuko, ez zuzenean, ez zeharka.

b) Debeekatuta dago edari alkoholdunik edo tabakorik ematea edo saltzea.

c) Establezimendu publiko horiek irekita daudenean, ezin da ustiatu zorizko jolas-makinarik edo -sistematik.

d) *Establezimendua ezin izango da itxi erregelamenduz ezarritako ordua baino beranduago. Dena den, ordubete pasatu eta gero, lokala berriro ireki ahal izango da, baina ez zaie hemezortzi urtetik beherakoei sartzen utziko.*

e) *Ezin izango da ikuskizunik egin, apaingarririk jarri edo propagandarik egin adingabeen osotasun fisiko, psikiko edo morala arriskuan jartzen badute.*

6.– *Bertaratzen den jendearen adina egiaztatzeko, nortasun-agiri nazionala edo agiri horren baliokidea erakusteko eska dezakete establezimendu publikoen edo instalazioen titularrek eta jendaurreko ikuskizunen edo jolas-jardueren antolatzaileek, zuzenean edo beren zerbitzura dauzkaten langileen bitartez. Ez diete sartzen utziko adina dokumentu bidez egiaztatzen ez dutenei edo, lege honetan ezarritakoaren ondorioetarako, adinaren eskakizuna betetzen ez dutenei; barruan egonez gero, irtenaraziko dituzte, zuzenean edo beren zerbitzura dauzkaten langileen bitartez.*

7.– *Adingabeei ezin izango zaie edari alkoholduunik edo tabakorik saldu edo eman jendaurreko ikuskizunak edo jolas-jarduerak antolatzen dituzten establezimenduetan edo instalazioetan sartzen direnean, eta gai horiei buruz indarrean dagoen legeria beteko da.*

53. ARTIKULUA. Arau-hauste arinak.

12. *Pertsona-taldeek ostalaritzako lokaletatik kanpo eskuratutako edariak edatea kalean edo leku publikoetan, eta elkarretaratze edo edari-kontsumo horren ondorioz leku publikoa erabiltzen dutenei edo auzokoei eragozpenak eragin, inguruaren lasaitasuna asaldatu edo egoera osasungaitzak sorrarazi ahal izatea.*

## ESTATU MAILA

- 1) **LEY 42/2010, de 30 de diciembre por la ley se modifica la Ley 28/2005 sobre medidas sanitarias frente al tabaquismo y reguladora de la venta, el suministro, el consumo y la publicidad de los productos del tabaco.**

*La Ley 28/2005, de 26 de diciembre, de medidas sanitarias frente al tabaquismo y reguladora de la venta, el suministro, el consumo y la publicidad de los productos del tabaco, supuso un hito importante en la política de nuestro país en la lucha contra el tabaquismo, tanto en lo que se refiere a la prohibición de fumar en lugares públicos como a las medidas encaminadas a potenciar la deshabituación del tabaco y a tratar de erradicar a medio y largo plazo el hábito de fumar.*

*Transcurridos más de cuatro años de aplicación de la Ley, es patente, como se desprende de diversos estudios realizados al respecto, la necesidad de avanzar en la protección de la salud de los ciudadanos ampliando la prohibición de fumar en espacios públicos cerrados y colectivos, lo que, por otro lado, satisface las demandas de los ciudadanos, como corroboran encuestas oficiales recientemente realizadas.*

*Dos son los colectivos especialmente beneficiados de esta medida. Por un lado, el de menores, grupo especialmente sensible de población que está expuesto al humo del tabaco en los lugares públicos cerrados. Por otro lado, el de trabajadores del sector de la hostelería que se encuentra claramente desprotegido con respecto al resto de los trabajadores, al estar expuestos al humo de tabaco ajeno.*

*Por todo ello, y en la línea seguida en materia de prevención y control del tabaquismo por la Unión Europea, con una estrategia concreta de la Comisión Europea, cuyo objetivo es ampliar la prohibición de fumar en espacios cerrados en todos los Estados miembros en 2012, posición que corrobora la ratificación por España, en diciembre de 2004, del Convenio Marco para el Control del Tabaco de la OMS, esta ley, que modifica la Ley 28/2005, se encamina a avanzar en las limitaciones tendentes a aumentar los espacios libres de humo del tabaco.*

#### Artículo 1. Objeto.

Esta Ley tiene por objeto:

*a) Establecer, con carácter básico, las limitaciones, siempre que se trate de operaciones al por menor, en la venta, suministro y consumo de los productos del tabaco, así como regular la publicidad, la promoción y el patrocinio de dichos productos, para proteger la salud de la población.*

*b) Promover los mecanismos necesarios para la prevención y control del tabaquismo.*

#### Artículo 2. Definiciones.

1. A los efectos de esta Ley, se entiende por:

*a) Productos del tabaco: los destinados a ser fumados, inhalados, chupados o masticados, que estén constituidos, aunque sólo sea en parte, por tabaco.*

*b) Publicidad: toda forma de comunicación, recomendación o acción comercial cuyo objetivo o efecto directo o indirecto sea la promoción de un producto del tabaco o el uso del tabaco, incluida la publicidad que, sin mencionar directamente un producto del tabaco, intente eludir la prohibición de la publicidad utilizando nombres, marcas, símbolos u otros elementos distintivos de productos del tabaco.*

*c) Patrocinio: cualquier tipo de contribución, pública o privada, a un acontecimiento, una actividad o un individuo cuyo objetivo o efecto directo o indirecto sea la promoción de un producto del tabaco o el uso del tabaco.*

*d) Promoción: todo estímulo de la demanda de productos del tabaco, como anuncios, publicidad y actos especiales, entre otros, destinados a atraer la atención y suscitar el interés de los consumidores.*

*e) Espacios de uso público: lugares accesibles al público en general o lugares de uso colectivo, con independencia de su titularidad pública o privada. En cualquier caso, se consideran espacios de uso público los vehículos de transporte público o colectivo*

2. A efectos de esta Ley, en el ámbito de la hostelería, se entiende por espacio al aire libre todo espacio no cubierto o todo espacio que estando cubierto esté rodeado lateralmente por un máximo de dos paredes, muros o paramentos.

Artículo 3. Venta y suministro de los productos del tabaco.

*1. La venta y suministro al por menor de productos del tabaco sólo podrá realizarse en la red de expendedurías de tabaco y timbre o a través de máquinas expendedoras, ubicadas en establecimientos que cuenten con las autorizaciones administrativas oportunas, para la venta mediante máquinas, y queda expresamente prohibido en cualquier otro lugar o medio.*

*2. Se prohíbe vender o entregar a personas menores de dieciocho años productos del tabaco, así como cualquier otro producto que le imite e induzca a fumar. En particular, se prohíbe la venta de dulces, refrigerios, juguetes y otros objetos que tengan forma de productos del tabaco*

*y puedan resultar atractivos para los menores. Igualmente, se prohíbe la venta de tabaco por personas menores de dieciocho años.*

*En el empaquetado de los productos del tabaco deberá incluirse una referencia expresa a la prohibición de su venta a menores de dieciocho años.*

*3. En todos los establecimientos en los que esté autorizada la venta y suministro de productos del tabaco, se instalarán en lugar visible carteles que, de acuerdo con las características que señalen las normas autonómicas en su respectivo ámbito territorial, informen, en castellano y en las lenguas cooficiales, de la prohibición de venta de tabaco a los menores de dieciocho años y adviertan sobre los perjuicios para la salud derivados del uso del tabaco. En estos establecimientos se exigirá a todas las personas compradoras, salvo que sea evidente que son mayores de edad, acreditar dicha edad mediante documento de valor oficial.*

*4. Se prohíbe la comercialización, venta y suministro de cigarrillos y cigarritos no provistos de capa natural en unidades sueltas o empaquetamientos de menos de 20 unidades.*

*5. Se prohíbe, en el ejercicio de una actividad comercial o empresarial, la entrega, suministro o distribución de muestras de cualquier producto del tabaco, sean o no gratuitas, y la venta de productos del tabaco con descuento.*

*Se presume que la entrega, suministro o distribución de muestras tiene lugar en el ejercicio de una actividad comercial o empresarial cuando se efectúa directamente por el fabricante, productor, distribuidor, importador o vendedor.*

*6. Se prohíbe la venta y suministro de productos del tabaco por cualquier otro método que no sea la venta directa personal o a través de máquinas expendedoras que guarden las condiciones señaladas en el artículo siguiente. Queda expresamente prohibida la venta o suministro al por menor de productos del tabaco de forma indirecta o no personal, mediante la venta a distancia o procedimientos similares.*

*7. El Gobierno, mediante Real Decreto, determinará los contenidos y componentes de los productos del tabaco, en especial los elementos adictivos, así como las condiciones de etiquetado que éstos deberán cumplir.*

Artículo 4. Venta y suministro a través de máquinas expendedoras.

La venta y el suministro a través de máquinas expendedoras se realizará de acuerdo con las siguientes condiciones:

*a) Uso: se prohíbe a los menores de dieciocho años el uso de máquinas expendedoras de productos del tabaco.*

*b) Ubicación: Las máquinas expendedoras de productos del tabaco sólo podrán ubicarse en el interior de quioscos de prensa situados en la vía pública y en locales cuya actividad principal sea la venta de prensa con acceso directo a la vía pública, en las tiendas de conveniencia previstas en el artículo 5.4 de la Ley 1/2004, de 21 de diciembre, de Horarios Comerciales, que estén ubicadas en estaciones de servicio, así como en aquellos locales a los que se refieren las letras k), t) y u) del artículo 7 en una localización que permita la vigilancia directa y permanente de su uso por parte del titular del local o de sus trabajadores.*

*En paralelo a la venta a través de máquinas expendedoras, se permitirá la venta manual de cigarrillos y cigarrillos provistos de capa natural en dichos locales que cuenten con la autorización administrativa otorgada por el Comisionado para el Mercado de Tabaco.*

*c) Advertencia sanitaria: en la superficie frontal de las máquinas figurará, de forma clara y visible, en castellano y en las lenguas cooficiales de las Comunidades Autónomas, una advertencia sanitaria sobre los perjuicios para la salud derivados del uso del tabaco, especialmente para los menores, de acuerdo con las características que señalen las normas autonómicas en su respectivo ámbito territorial.*

*d) Características: para garantizar el uso correcto de estas máquinas, deberán incorporar los mecanismos técnicos adecuados que permitan impedir el acceso a los menores de edad.*

*e) Incompatibilidad: en estas máquinas no podrán suministrarse otros productos distintos del tabaco.*

*f) Registro: las máquinas expendedoras de productos del tabaco se inscribirán en un registro especial gestionado por el Comisionado para el Mercado de Tabacos.*

Artículo 5. Prohibición de venta y suministro en determinados lugares.

Sin perjuicio de lo dispuesto en los artículos anteriores, queda prohibida la venta y suministro de productos del tabaco en los siguientes lugares:

- a) Centros y dependencias de las Administraciones públicas y entidades de Derecho público.*
- b) Centros sanitarios o de servicios sociales y sus dependencias.*
- c) Centros docentes, independientemente de la edad del alumnado y del tipo de enseñanza.*
- d) Centros culturales.*
- e) Centros e instalaciones deportivas.*
- f) Centros de atención y de ocio y de esparcimiento de los menores de edad.*
- g) En cualquier otro lugar, centro o establecimiento donde esté prohibido su consumo, así como en los espacios al aire libre señalados en el artículo 7, salvo lo previsto en la letra b) del artículo 4*

Artículo 6. Limitaciones al consumo de los productos del tabaco.

El consumo de productos del tabaco deberá hacerse exclusivamente en aquellos lugares o espacios en los que no esté prohibido

Artículo 7. Prohibición total de fumar.

Se prohíbe fumar, además de en aquellos lugares o espacios definidos en la normativa de las Comunidades Autónomas, en:

- a) Centros de trabajo públicos y privados, salvo en los espacios al aire libre.*
- b) Centros y dependencias de las Administraciones públicas y entidades de Derecho público.*
- c) Centros, servicios o establecimientos sanitarios, así como en los espacios al aire libre o cubiertos, comprendidos en sus recintos.*

- d) Centros docentes y formativos, salvo en los espacios al aire libre de los centros universitarios y de los exclusivamente dedicados a la formación de adultos, siempre que no sean accesos inmediatos a los edificios o aceras circundantes.*
- e) Instalaciones deportivas y lugares donde se desarrollen espectáculos públicos, siempre que no sean al aire libre.*
- f) Zonas destinadas a la atención directa al público.*
- g) Centros comerciales, incluyendo grandes superficies y galerías, salvo en los espacios al aire libre.*
- h) Centros de atención social.*
- i) Centros de ocio o esparcimiento, salvo en los espacios al aire libre.*
- j) Centros culturales, salas de lectura, exposición, biblioteca, conferencias y museos.*
- k) Salas de fiesta, establecimientos de juego o de uso público en general, salvo en los espacios al aire libre.*
- l) Áreas o establecimientos donde se elaboren, transformen, preparen, degusten o vendan alimentos.*
- m) Ascensores y elevadores.*
- n) Cabinas telefónicas, recintos de los cajeros automáticos y otros espacios cerrados de uso público de reducido tamaño. Se entiende por espacio de uso público de reducido tamaño aquel que no ocupe una extensión superior a cinco metros cuadrados.*
- ñ) Estaciones de autobuses, salvo en los espacios que se encuentren al aire libre, vehículos o medios de transporte colectivo urbano e interurbano, vehículos de transporte de empresa, taxis, ambulancias, funiculares y teleféricos.*
